

Noqua!!

H A M A B O S K A R T A

2000ko abenduaren 22a V. urtea

Usurbil, 103. zenbakia

**Guztiok erotu
ote gara?**

USURBILGO OFIZIOAK ZURE

ESKURA DITUZTE

I geltseritza



JOSE MARI
IKURZUA

Urate, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12

P inturak

FERNANDO
PINTURAK
Enpapelaketak eta pinturak
orokorran
Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

I turgintza

IÑAKI
LATAILLAN
Iturgintza eta iturgintza
INSTALAMINTZAK
Mobila: 609 88802

RAMON
BARCENILLA
Pilor pintura eta gotele lanak
Papereztatze- lanak
Pintura-lanak orohar
Mobila: 629 46 09 66

ERRAZKIN
IGELTSEKITZA

Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santuenea ☎ 629 42 05 65



Pinturas
Ion
943 83 09 37 ☎ 670 397504

JOSE AIZPURUA UNANUE
Igeltseritza eta pintura

Telataroa bantzea
Fotokalea korporazioa
Pintore kalea, 1 - 3A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83
Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZAZISTRO

Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

JOSEBA
ARANGUREN
☎ 943 36 43 64

E lektrizitatea

MIKEL IZAGI
Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

A rotegiak

Iñaki
Iturgintza
 Iturgintza orokorran
 Berokuntzak
 Gasa
Mobila: 600 024 825

E skaiola

BEREZIARTUA
Egurrezko eta aluni-
egurrezko oihok
Aginaga
Telf: 943 37 15 71

PORTILLARRINE
BAINUKO ALTZARIAK
Telf: 943 36 46 37

JOSE ANTONIO
E I O R Z A
Galtzaragaina 2-2B
Telf 943 37 34 70

JOSE RAMON
IBARGOEN
Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

Gida honetan azaldu nahi badu-
zu, deitu!
943 36 03 21
telefonora

Bizkarrak esk.

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Eider!** Abenduaren 29an 22 urte beteko dituzu eta orduan "oraindik 21" ezingo duzu esan. Ondo pasa eta besarkada haundi bat!



Berandu bada ere ez pentsa hitaz ahaztuta geundenik. Pasa den abenduaren 10ean hire eguna izan hunan. Zorionak eta urte askoan.



Datorren abenduaren 28an ahalik eta ondoen pasa dezazula opa dizugu. Inuxenteen eguna izan arren ez gara zutaz ahaztuko, ez horixe! Muxu haundi bat etxekoan partez. Urte askotarako **Esther!**



Zorionak eta muxu haundi bat **Tomax eta Arrate.** Etxeko txikiak dagoeneko lau urte bete ditu, orduan bere aitak zenbat ote? Bion zorionak ospatzeko zerbait prestatu ezazue!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota titulu-
ren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarrri jarri
beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urtarrilaren 12an
Ekartzeko azken eguna: urtarrilaren 5a

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Urtea amaitzera doa eta hauxe
duzue 2000. urteko azken alea.
Datorren urtean indarberriturik
etortzeko asmotan gara, baina lasai-
tzeko denbora pixka bat izan deza-
gun hiru astetan ez duzue **Noaua!**
aldizkaririk jasoko. Hori bai, urtarrila-
ren 12an berriz ere zuen etxeetan
izango duzue.

Kalkos kopisteria



- ✎ Fotokopiak
- ✎ Fotokopiak koloretan
- ✎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✎ Planoen kopiak (A0 arte)
- ✎ Ordenadoreko lanak
- ✎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ✎ Zure argazkia puzzle batean

Urte berri on!

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Tel: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Urteberri on!



BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Aginaga
☎ 36 27 73

SEKAÑA

L I Z A R D I

L I B U R U D E N D A

✕ Liburu eta CDtan
berrikuntza ugari!

Erosi hemen Gabonetako
oparia!

Eguberri zoriontsuak!
Etxebeste, 1 Tel.:943 36 11 15

XABIER
EDARITEGIA



**Etor zaitetz,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak**
✕ Idiazabal gazta
✕ Beasaingo odolkiak...
Urte berri on!

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

L U R D I E S

FRUTAK



**Eguberri
zoriontsuak
opa dizkizuegu!**

Bizkarre,3 Telf:943372368

u r u - z 1 r a z n k t
11 - n k t

J z r n t s u k
z k z u u

Etx: st, 3 T L 37 1 5

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tif. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalao Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Herriko harategietan aurkitu dezakezun behikia



“Nolako jolasak, halako umeak”

Aiora Godinez

Pedagogia ikaslea

Jolasak zein jostailuek berebiziko garrantzia dute haurren lehen urteetan, umearen heziketa konstruktiboa eta interaktiboa gartzan laguntzen baitute. Hau guztia jakinik, ez al da garrantzitsua jolasak eta jostailuak ondo aukeratzea?

Gaur egungo iragarkiak ikusita, ordea, zeharo txundituta geratzen naiz. Guztiak erasokorrak eta sexistak dira. Jostailu mordo dago, aukera izugarria, baina oso gutxi dira didaktikoak. Gainera, argi eta garbi finkatzen dute jostailua norentzat den: panpinak nesKentzat eta untiak, robotak... mutilentzat. A ze astakeria!

Sexismoaz gain, indarkeria eta borroka da egungo jostailuen funtsa, bateko robotak eta beste heroien borrokalariak direla medio. Inda-

rra neurtzeko jostailuak dira, garrantzitsuena boteretsuena nor den jakitea da. Honetan ere sexuak zerikusi handia du, gainera. Borroka, boterea, indarra... hauek guztiak beti mutilen esku jartzen dituzte. Neskek, berriz, nahikoa lan izaten dute panpinak orrazten eta apaintzen. Hau hezigarria ote? Eta mutiko batek panpina bat eskatzearen aukera uzten al dute iragarkiok? Neska batek ezin al du gustuko izan kotxe bat?

Jostailu didaktikoak egon badaude, gurasoen lana da, ordea, hauek bilatu eta egoki aukeratzea. Erosketa garaia den honetan aita-amak hausnarketa bat egi-tera gonbidatuko nituzke. Seme-alaben heziketak ez du gutxiago merezi eta.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Sergio Montes Guerra

15 urte ditu eta ja ez daki non sartu jasotzen dituen sari guztiak. Etorkizunean judo eta borroka librean praktikatzen jarraitzeko asmoa du.



Noiz hasi zinen judoan ibiltzen?

Orain dela bederatzi edo hamar urte. Lagun bat hasi zen eta nire lagun onena zenez ni ere bai.

Borroka librean ere ibiltzen zara. Zein ezberdintasun dago bi kirol hauen artean?

la berdina da, baina puntuazioa beste modu batera egiten da. Erropa ere ezberdina da, judo egiteko jantzi txuria erabiltzen da eta borroka librean elastiko estu bat eta bota batzuk. Gainera, borroka librean epaileak txilibitua erabiltzen du eta judoan ez. Bestela entrenamendu bera eskatzen du.

Zein koloreko gerrikoa daukazu orain?

Marroia daukat orain eta bi edo hiru urte daramatzat gerriko berarekin. Denbora batean oraingoz honekin jarraituko dut eta ondoren beltza ateratzeko asmoa dut.

Txapelketeta askotan hartzen duzue parte ezta?

Urtean zehar dexente izaten ditugu: Gipuzkoakoa, Euskadikoa eta Espainiakoa besteak beste. Kanpora ere joaten gara gonbidatzen gaituztenean.

Nola aritzen zarete txapelketa hauetan banaka ala taldeka?

Ni banaka ibiltzen naiz normalean, baina badago bai banaka eta bai taldeka ibiltzen den jendea ere. Euskadiko txapelketan adibidez, taldeka lehiatzen da. Pisu batzuk daude eta pisu guztietako jendea baduzu talde bat daukazu.

Asko entrenatzen al duzue?

Astean hiru egunetan izaten dugu entrenamendua, ordu eta erdiz. Pixka bat gogorra da. Entrenatzaileak exijitu egiten digu eta asko saiatu behar izaten dugu.

Entrenamenduak talde ezberdinetan egiten al dizue?

Bai. Adinaren arabera egiten dira taldeak, baina bestela berdin du gerriko ezberdina edukitzea.

Kanpora joaten al zarete?

Ni askotan joan izan naiz, gehienbat borroka librean dela eta; Sevilla, Murziara, Granadara, Zaragozara, Madrilera... Beste batzuk gehiago ateratzen dira, Holanda edota Yugoslavian egon izan baitira.

Aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak sari bat eman dizu? Zer dela eta izan da hau?

Niri eta Josu Arrutiri eman digute saria lortu ditugun emaitzengatik, Espainiako txapelkunak izan baikara borroka librean. Plaka bat eman digute sari bezala.

Sari hau jasotzen duzun lehenengo aldia al da?

Bai eta hurrengo astean "deportista promesa" deitzen den beste bat jaso behar dut, hau ere Gipuzkoako Foru Aldundiak emana.

Zer suposatzen du zuretzako horrelako sari bat jasotzeko?

Emaitza onak egin eta horrelako sari bat jasotzeko asko poztu nau. Jarraitzeko gogoia ematen dizu gainera.

Zenbat sari jaso dituzu dagoeneko?

Ez dakit. Kutxa batean dauzkat sartuta eta garrantziak direnak apal batean. Hor dauzkat esaterako Espainiako eta Gipuzkoako txapelketetan irabazita-koak.

Honetan jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Eskubaloia utzi egingo dut eta judoan eta borroka librean arituko naiz soilik.

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

KIROLAK MODA
Errealeko txandal berriaren prezio ofiziala
16.990 pezetakoa da. Gabonetan
gurean **15.000** pezetetan edukiko duzu!
Beraz, aprobezta ezazu!
URTE BERRI ON!

TXITEGI
INTX E EZI K
Urte berri on!
rtz e, 2 T L 3371 2

TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Gabon garaia, festa garaia

Dagoeneko abenduan sartu gara, urteko azken hilabetean. Abendua hitza neguarekin lotzen dugu, baina baita jai egun eta gabonekin ere.

Hilabete hau jaietz josia dago; kontsezio eguna, Santo Tomas eguna, Eguberri eguna, San



Esteban txiki eguna eta urtezharr eguna.

Egun hauetako batzuetan lanera joan beharra izaten dugu baina giro ederra sortzen diren egunak dira. San Esteban txiki eguna, izenak dioen bezala, San Esteban donearen eguna da. Bai, San Esteban eguna urtean bi aldiz ospatzen da, udaran eta neguan.

Neguko jai hau abenduaren 26an izaten da, eta ermitan meza entzun ondoren haragi egosia eta txorizoa dastatzeko aukera izaten, hori bai, ardoa mahai gainean betil. Garai batean goizean mezetara joan

eta arratsaldean Txokoaldera jeisten ziren jai hau ospatzera, dantzaldia izaten baitzen Saltxipi sagardotegian. Urte sasoi honetan eguraldi ona egitea zaila denez sagardotegiko aterpean biltzen ziren dantzaldirako.

Txokoaldetarrok ez dugu egun seinalaturik jai egiteko eta ez dugu santurik ere, baina San Estebangoak gure auzoko jaiak izango balira bezala da. Familia elkartu eta jatordu berezi bat egiteko aitzakia izaten dira besteak beste jai egun hauek. Gabonetako jai egunetan ere, Txokoalden familia asko elkartzen gara, bakoitza bere etxean, gabon jai hauek ospatuz.

KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



Euskara erakustea pekatu omen da

Bost urte irakasle ibili naizen euskaltegian, euskalduntze alorrean urratsen bat eman dudalakoan nago. Irakasleak ezagutu, zer nolako hutsuneak zituzten aztertu, klaseak nola eman niezaizkieken planteatu, eta azkenik, AEK-k duen metodologiaz jabetuz, ikasleengana hurbildu besterik ez nuen egin.

Irakasleak klaseko partaide izanik, beraien hutsuneak ahalik eta modu erosoan eta gustagarrienean konpontzen saiatuz besterik ez da ematen ohiko klasea. Bere ingurune hurbila nolakoa den jakinik, euskarak nolako eragina eta bultzada eman dezakeen aztertzean datza eguneroko lan hori. Orain arte batzuentzat ezezaguna izan den hori ezagutarazi eta gure kulturaren ateak

zabaldu, euskara nola goza eta bizi daitekeen erakutsi, honekin guztiarekin aberastasuna baino ez zaio eskaintzen.

Urterik urte hainbat ikasle igaro da herriko Etumeta euskaltegitik eta hizkuntza ikasi heinean, batzuk ederki txertatu dira euskal giroan. Beste batzuk, ordea, hizkuntzaz jabetu ez eta bere horretan gelditu dira. Alor honetan euskaldun zaharren jokaera funtsezkoa izan da euskaldun berrien hizkuntza maila aberasterakoan eta eguneroko bizimodura egokitzerakoan. Beraz, euskaldun zaharrok kalean ere irakasle izan behar dugu hizkuntza kaletar bihurtzeko ahaleginean, euskara ez dadin klase barruan gera.

Bestalde, helduen euskalduntzean ere egin da lanik azken urteotan, hala, seme-alabak eredu euskaldunetan dituzten gurasoentzako ikastaroak bideratu dira. Ikastaro eta hezitze programa hauen guztien gakoa, ordea, euskara ikasgelatik kalera eta etxera eramantean datza.

Azkenik, Usurbilgo Etumeta euskaltegiak bere historian zehar antolatu dituen ekitaldi mordo azpimarratzekoa da: Korrika, irteerak, kultur ekitaldiak...

Europako hizkuntzarik zaharrena irakastea eta bere honetan bizitzen erakustea kulturaren esparrua zabaltzea da. Hori pekatu baldin bada, dena da pekatu.

KALEZAR

Urko Manterola



Urte berriarekin proiektu berriak

Aurtengo nire azken kronika den honetan, beste hainbatetan bezala, ez daukat zer idatzi haundirik.

Aurreko alean Ainarak esan zuen bezala, egia da, bai,

hemen ez da giro obra kon-tuak direla medio. Oraingoan, ordea, beste kontu batekin natorkizue, norbait obrekin eta berritze lanekin aspertuta egon baitaiteke dagoeneko.

Epe laburrera gure ingurune-an izango diren zenbait proiektu aipatu behar ditut. Batetik, Artzabalén, badakit ez dela Kalezar baina, etxebizitza berriak egiten hastekoak omen dira. Honekin batera,

Harane erreka bazterrean, Puntapaxetik hasi eta Ostape alderaino, parke bat egiteko proiektua dago. Egitasmo honen barne, garbitegi zahar-reko eskilarak konpontzekotan omen dira.

Proiektuak proiektu berrikun-tza oro ona izan daiteke gure auzoarentzat. Hala, berehala martxan jartzea eta emaitza txukuna izatea eskatzea beste-rik ez daukat.

Bide batez, eta aurtengo nire azken agerpena dela kontuan izanik, tartetxo honetaz baliatu-ko naiz auzotar zein herritar guztiei eguberri onak eta urte berri hobea opatzeko. Dato-rrén urtera arte, ADIO!



ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



Kontuz!

Auzo zoragarri hau muino batean kokaturik dago. Hau dela eta, nonahi eskilarak ikus ditzakegu; batzuk garbiak, beste batzuk berriz hobe ez esatea. Baina modu batean edo bestean, eskilarak izaten jarraitzen dute.

Auzoan zehar zenbat eskilara dauden kontatzen hasiko bagina kontxo, *Noaual*ko lehiaketa-rako galdera polita!

Egunero eskilaratatik gora eta behera ibiltzen garenak asko gara eta tartean umeak, lurre-ra erortzeko arrisku handiena dutenak. Eskilarak segurtasuna ematen dute maldan behera baina pausua gaizki emanaz gero, segurtasunak ez du asko-

tarako balio, are gutxiago arris-ku hori erraztu ditzakeen zen-bait elementuk (irudikoa kasu)



bere horretan jarraitzen badu-te.

Irudian ikusten duzuen ez da bromarako kontua. Auzoa era-berritu zutenetik (eraberritzen bukatu zutela esatea ere) zulo-txoari laguntzen dioten lau tor-loiu horiek oraindik lorategi zoragarri horretan jarraitzen dute. Ez dut pentsatu ere egin nahi, kasualitatez gertatzen bada ere, zer gertatuko litzate-keen hortxe bertan norbait lurrera eroriko balitz.

Tira, ingurune honetan hain-bat gauza bere horretan utzita daudenez eta oraingoz horrela jarraitzeko itxura dutenez, gauza bakarra esango dizuet: kontuz ibili!

SANTUENEA

Agustin Esnaola



Auzora nor jaitsiko ote da menditik?

Nik nahiago dut Olentzaro, gizon gaztea jaistea, Aralarko menditik basajaunen agintearen amaiera eta jesusen etorrera aditzera ematen duen hori jaistea. Onenarok edota Olentzarok "gauza onen garaia" adierazten du. Euskal ohitura zaharretan zerria hiltzen zeneko San Martin ingurua esan nahi zuen.

Ez ordea, Olentzerok: pertsonai komikoa, ikatzaz zikinduta ageri zaigu. Ezjakina, triponzia, pipa hortzetan hartuta janaria soberan duena. Txapela zulatua buru gainean eta bertan txoriek beren habia eginda duten ondutako belarraz betetako burua. Horixe da

Olentzeroren irudia, guri ematen digutena behintzat bai.

Hau ikusirik zein ote da gure auzoan, abenduaren 24an arratsaldeko 18:30etan gurdi baten gainean aterako dena? Olentzaro edo Olentzero? Zein ote da?



Ikusi nahi baduzu, azaldu zaitenez Tragoxka tabernara. Auzoek gure pertsonaia ezaguna agurtzeko aukera.

Euria egiten badu non babestuko dugu gure pertsonaia mitikoa? Hau galdera ona da, ez baitago aterperik gure auzoan. Ez du axolik, horretara ohituta gaudenez ziur aterpe txikiren bat topatzen dugula.

Dena den, auzo guztiak gonbidatuta zaudete abenduaren 24an arratsaldeko 6:30etan tragoxka tabernaren aurrean parte hartzera. Ez ahaztu, zein da gure pertsonaia Olentzaro edo Olentzero?

URDAIAGA

Joseba Zubeldia



Usurbil gure auzotik ikusita

Jakina da azken urteotan Usurbilgo herria handiagotzen, zabaltzen, ari dela, egingdako lanak ez baitira alperrikoak izan. Hori argi eta garbi ikus daiteke gure auzotik, izan ere hemendik herriaren ikuspegi oso zabala baitago.

Orain urte gutxi, duela hamar hamabost bat urte inguru, Usurbilek dituen auzo ezberdinak bereiztea erraza izaten zen, beraien arteko banaketa garbi ikusten zen, Kalezar eta Kaxkoaren artekoa esaterako.

Gaur egun, ordea, auzo ezberdinen arteko zelaietan eraikuntza ezberdinak egin

dira, eta ondorioz, auzo ezberdinak batuta baleude bezala geratu dira.

Usurbil herria handiagotzen ari da, beraz; ez, ordea, bizilekuei



dagokionez bakarrik. Industria gune berriak sortzen ari dira, baita lehen zeudenak zabaltzen ere, herriko lan jarduera martxa onean doa nonbait! Ezin esan, beraz, Usurbilek etorkizun txarra duenik.

Beste gai bati helduz, Usurbilgo elizaren dorrean azkenaldian egin dituzten konponketek bere fruitua eman dutela esan beharra dago, erabat eraberrituta agertzen baita. Egunez kolore argiago bat duela ikus daiteke, hormetako harriek izandako garbitze lanen ondorioz. Gauez, berriz, jarri dizkioten argiak direla eta oso argitsu agertzen da.

AGINAGA

Iratxe Begiristain



Urte bukaerako mendi bueltak

Data seinalatuak datozki-gu: gabon gaua, Olentzero, urtezahar eguna... jan egunak, azken finean. Era askotara ospatzen dira, bakoitzak ohi edo ahal duen moduan. Haue-tako bat pertsonalki gustuko dudana eta oso gutxi egiten dena da: urtezahar eguneko mendi buelta; batzuk Aizkorri-ra, besteak Txindokira, zonalde bakoitzaren arabera edo bakoitzak gustuko duen lekua-ren arabera. Egun hauetan ez dago izerdi pixka bat botatzea baino sentipen hoberik. Gurutzera igo eta nola ez: turroi piska bat janez, txanpain trago bat edatea.

Ez dezala inork pentsa,

ordea, egun horretan txozna berezirik egoten denik gailurre-an, ez! Motxilan hartu eta gora. Inguruko guztia ikusiz egoteko aukerarik bada, ez da leku hoberik izango urteko balan-tzea egin eta hurrengo urteari begira dauden ikuspegiez mintzatzeko.

Gau honetan parranda gutxi egin edo gosaritara iristen direnentzat aldiz, urteberri eguneko zita (eskualde honetan behintzat) Adarran izaten da. Gailurra egin eta Bexabira gosari-hamaiketako egitera. Bada, ordea, azken aldian modan jartzen ari den zerbait ere: ton-torrera igo gabe zuzenean Bexabira joatea, alegia.

Aurtengo urteari agur esatea txoko honetatik niri egokitu zai-danez ezin buka nezake denoi urteberri on bat opatu gabe eta Olentzerori urteroko eskaria egin gabe: datorren urteko gabon egunak bereziak izan daitezela falta diren guztiak etxean ditugula txanpain brin-dis haundi bat eginez .



ZUBIETA

Karme Urdanpilleta



Beste bat gehiago

Beste bat gehiago esango du batek; ez xamurra eta biguina izan delako, erantsiko du beste bigarren batek; 2000. hau korapilatsua eta berezia, tartekatuko du hirugarren batek. Hala ere, azkar zoazen gero eta azkarrago; urtaroen segida zirkulu osoa itxiz, behin eta berriz errepikatzearena da naturarena, eta behin eta berriz berritzearena.

Biluztu ditu jada uda oparoan mardul zeuden zuhaitzak, erantzi estalian zegoena kanpora azalduz; ixilik, astiro, pasakorra den utzi eta iraungo duena azalduz... gauza bagina geu ere horixe bera geure

barruarekin egiteko. Errotik aldatu, errotik berritu!

Sortua den guztiaren nagusi jarri gaituenak galde egingo baligu; jakin al duzu nagusigokak dituen betebeharrak eta zereginak, eskubide eta onurak zeintzuk diren? Garen eta dezakegun onenaren mailan nola gabilta? Zein neurritan gabilta?

Eguberriak bete-betean ditugu. Agian ez duzu izango suaren ondoko gaztain erre berrien usain gozorik, ez eta danbolin hots zipli-zaplarik, ez eta artazuriketa eta inguruko kontakizun zaharrik, agian, ezta nahiko zenukeen senitarte gozoan

esertzerik edo horretarako aukerarik ere. Baina bihotz ondoko magala oraindik bero, hanka punttatan norbait eserita eta alboan zenbait dituzula transmititu beharreko elezahar-rak asetzen eta itxaropen aleak jalkitzen etsita eta berorik gabe norbait balitz... zailtasunen berri dakien harek samurtasunez jalkitako istorio sarkor bezain argitsuak. Eta probatuko bagenu geure, Euskal Herriko bezain unibertsal diren, elezahar hauek gogoratzen ziur egon bat baino gehiago izango liratekeela gure izatearekin bat egingo luketeenak.

Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa herritar guztiei.

Nekazaritza jarduerak berpizteko diru laguntzen araudia onartu da

Nekazaritza jarduerak berpizteko udalak ezarritako diru laguntzen araudia haseraz onartu du udalak. Bi dirulaguntza mota izango dituzte: batetik 30 m³tik gorako ur kontsumoa merkeago izango dute eta bestetik nekazaritza jarduerarako eraikin berriak eraikitzean edo eraberritze lanak egiterakoan udalak ezarritako zerga itzuliko zaie.

Horretarako, ordea, udalak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dira. Alde batetik Foru Aldundiak ezarrita dituen Nekazaritza Lan Unitateetako bat gainditu beharra dago, bestetik nahiz eta aurreko baldintza ez bete, Lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez bada dirulaguntzak jasotzeko aukera izango da, eta azkenik, jarduera jabegoen kasuan, urteko irabazia 5 milioi edo haundiagoa bada ez da dirulaguntzarik jasoko.

Nekazal jarduera bezala hurrengo hauek hartzen dira kontuan:

- Laboreko jarduerak: baratza, fruitugintza, loragintza, mintegiak eta perretxikuak.

- Basogintza jarduerak: basoko fruitu, hazi edo landareen ekoizpen edota bilketa eta mendia oinarri bezala dituzten bilketa jarduerak, beti ere, meatzaritza eta hidrobiologiako kontuan hartu gabe.

- Abelazkuntza jarduerak: behitegi, arditegi, txerritegiak, oreinak, bisoiak, ahateak, antzarrak, zalditegiak (moxalak bertan jaio eta bertan hazten badira), hegazti zaintza, untxi zaintza, erlezaintza eta ustiaketa zinegetikoak.



- Tolarea duten eta "txotx" garaian bakarrik aritzen diren sagardotegiak; arautegi honetan, "txotx" garaia urteko bakoitzeko urtarillaren 1etik apirilaren 15erako epea izango da.

Bestalde, nekazal jarduera modura kontuan hartuko ez direnak ere zehaztu ditu udalak:

- Moxalak bertan jaio eta hazten ez dituzten zalditegiak.

- Txakurtegi, animalia denda edo aterpeak, hiltegi industrialak eta antzekoak.

- Parke zoologikoak, edozein motatakoak edota animalia erakusketak.

- Etxeko animalien haztegiak (txoriak, katuak...).

- Pizifaktoriak.

- Tolarerik gabeko sagardo-

tegiak edota "txotx" garaitik kanpo aritzen diren sagardotegiak.

Baldintza guzti horiek betetzen dituzten nekazaritza jarduerak bi dirulaguntza ezberdin jaso ahal izango dituzte:

Alde batetik 30 m³tik gorako ur kontsumoa merkeago izango dute. Bigarren tarifa m³ bakoitzeko 69 pezeta kobratu beharrean 36 pezeta kobratuko zaie. Beste aldetik, nekazaritza jarduerarako eraikin berriak egiterakoan, edo eraberritze lanak egiterakoan udalak ezarritako zerga itzuliko zaie.

Horrez gain, nekazaritza jarduerari lotutako etxebizitza berriak egiterakoan edo eraberritzerakoan eskatzailearen dedikazioaren arabera aplikatuko dira portzentaiak:

- Nekazaritzara dedikaziorik gabekoak ez dute dirulaguntzik izango.

- Eskatzailea nekazaritza jarduerarik izan gabe, lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez bada, eraberritze obretan soilik, udalak ezarritako zerga osoa itzuliko zaie dirulaguntza gisa.

Ur kontsumoa merkeago izan dezakete baldintza hauek betetzen dituzten nekazari edo abeltzainek

Aizpurua



Eguberritan zure mahaia
ondo hornitu nahi baduzu
gurean duzu aukera!

Telesforo Ardoak



URTE BERRI ON!

ALKORTA AUTOSERBITZUA

- . Frutak
- . Barazkiak
- . Etxeko produktoak
- . Kongelatuak

....



URTE BERRI ON!

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALUMINIOZKO AROSZTEGIA ALUAL, S.L.



URTE BERRI ON!

Ugaldea industrialdea 20 behea

Telf: 943 37 05 06 - Fax: 943 37 05 50

20170 USURBIL

ANTXETA

Zorionak eta
urte berri on!



Eguzkitza, 4
Telf: 943 37 03



- ✓ Matematika
- ✓ Ingelesa
- ✓ Fisika
- ✓ Informatika
- ✓ Kinika

Maila Guzti-

Zorionak eta Urte berri on!

Kale Nagusia, 10 behea atzeko aldea

H a r r i L a n a k



URTE BERRI ON!

Hilerriak, panteoiak eta hileta apainketak
Baserri eta edozein etxeetarako errotuloak
Oroitzapen plakak

Azpirozen zerbitzua Usurbilen
MUR ERROTULAZIOAK
Kale Nagusia, 10 - Telf: 943 36 30 21
Telf: 943 59 22 09 - ANDOAIN -



Igandetan ganba-ziri mundialak!
Pintxoetan aukera zabala
Asteburuetan bokadiloak


URTE BERRI ON!

Alperroburu, 1
Telf: 943 36 61 21



Kafe berezia

Txanpaina hozten jarria daukagu!



URTE BERRI ON!


San Esteban kalea, 8
Telf: 943 36 27 70

LABE GOXO

Okindegia - Gozotegia



Eguberri eta urte berri jai zoriontsauk opa dizkizuegu!



Kale Nagusia, 2 Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

Gabon zoriontsuak
pasa ditzazuela
URTE BERRI ON!



Estaturen erasoen aurrean, eraikiz erantzun!

**Nazio eraikuntzaren bidean,
euskal hezkuntza nazionala eraiki!**

Amnistia



Askatasuna

Urte berri on!



IRRATI TABERNA



Txanpaina hozten
jarria daukagu!

URTE BERRI ON!

KRIBETZI

lentzeria eta perfume denda



Urte berri on!

Zubiaurrenea, 10 Telf: 943 36 03 37

ELDUAIEN HIZKUNTZ ESKOLA

Urte berri on!

Ingelesa

KET
PET
FirstCertificate
Hizkuntz Eskola Ofizila

Emaitza onak atera nahi badituzue!

Zatozte
gurekin!



Zubiaurrenea, 6
Telf eta faxa: 943 37 14 02

Premiazko neurriak euskararen erabilera normalizatzeko

Udalean hainbeste zeresan eman duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Behin behineko Premiazko Neurriak behin betirako onartu ziren pasa den azaroaren 28an. Usurbildarren berezko hizkuntza euskara dela kontuan hartuta, udal ordezkari politikoei, udal langileek edo udalarekin lotuta dauden erakunde nahiz enpresek euskararen ulermenean, mintzamenean eta irakurmenean oinarritzeko maila behintzat izatea beharrezkotzat ikusi da.

Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarrizko Legeak herri-tarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-aginteei hizkuntzaren arloan dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Eskubide eta betebeharrak horiek gauzatzeko asmoz, udalak euskararen egoera eta erabilera arautzen duen Euskararen Udal Ordenantza onartu zuen 1989an.

Bestalde, UEMAk bere estatu-tuetan dio, besteak beste, udal partaideen administratzaileetako barne jardueran eta udalerrietako esparru guztietan euskararen erabilera bermatu

behar dela. Ondorioz, UEMAk euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal eskumeneko eremuetan, eta horretarako, lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean zehar.

EAEko dekretuaren bigarren plangintzaldia

Euskal Autonomi Erkidegoko 86/1997 dekretuak abian jarri zuen bigarren plangintzaldia (1997-2002) eta honekin euskararen erabilera areagotzea lortu nahi da administrazioko jardunbideetan. Urrats hauekin lotuta, euskararen aholku batzarrak aurrez proposatu ondoren, euskararen erabilera normalizatzeko behin behineko premiazko neurriak onartzea proposatu zuen udaleko euskara batzordeak eta irailaren 26ko udalbatza onartu zen bera.

Aurkeztutako alegazioak aintzakotzat hartu eta eskatutako egokitzapenak kontuan hartu ondoren, behin betiko onartu ziren euskararen erabilera normalizatzeko premiazko neurriak.

Euskara eta kultura teknikaria

Udalak kultura eta Hizkuntzaren Normalizaziorako teknikaria hartzeko asmoa du. Usurbilgo gaur egungo kultur eta hizkuntza egoera aztertzea eta nahi diren helburuak lortzeko udalaren kultura, euskara eta gazterian arloko programazioa sustatzea, aholkuak ematea eta teknikoki laguntzea izango dira besteak beste bere eginbeharrak. Horrez gain bai udalean eta baita herri mailan ere, euskara sustatu eta normalizatzeko helburua

izan beharko du, hizkuntza politika programa egin, kudeatu garatuz.

Hala ere, lanpostu hau atera izanak emango du zeresanik. Izan ere, udalean kultura, euskara eta gazterian idazkari lanak egiten dituen Lurdes Zubeldiak udalaren aurkako salaketa jartzeko asmoa baitu. Lurdesek 15 urte inguru daramatza udalean lanean eta lanpostu hori lortzeko oposiziotara aurkezte ez zaio bidezkoa iruditu.

Ura-estolderia eta zaborraren kobraketa

2000. urteko hiru hilabetearen kobraketei hilabete bateko atzerapena izan dute udalaren borondatez kanpoko arazoengatik. Dena ondo joanda azaroan kobratu behar ziren errezi-bo horiek, baina arazo batzuen ondorioz abenduan kobratzen ari dira. Guzti honengatik barkamena eskatu nahi du udalak.

Hitzarmena Udala eta Eusko Ikaskuntzak

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmen bat sinatu zuten pasa den abenduaren 21ean. Historiaren azterketa bat egiten hasi aurretik nondik eta nola hasi jakiteko eskema bat beharrezkotzat ikusi zuen udalak. Eusko Ikaskuntzaren lana izango da Usurbilen joratu daitezkeen arlo historikoak zehaztu eta hauekin eskema bat egitea. Eskema horren arabera udalak erabakiko du historiaren zein arlo eta nola joratu. Horrez gain, ikerketa hori egiteko beka deialdia ere Eusko Ikaskuntzak egingo du datorren urtean.

Bi lanpostutarako deialdia egin du udalak

Herriko udalean hutsik dauden udal eraikinen garbiketarako behin betiko garbitzaile eta peoi kale garbitzaile lanpostuak betetzeko deialdia egin du udalak. Bi lanpostuetarako hautaketak oposizio bidez egingo dira eta eskaerak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasi eta ondorengo 20 eguneko epean aurkeztu ahal izango dira. Betebeharreko baldintzak, lanpostuen funtzioak etab. jakin nahi dituenak udalean izango dituen argibide guztiak.

Olentzero eta Jaiotza frontoian elkartuko dira abenduaren 24an

Gabon egunaren bezperan Parrokiko taldearen Jaiotzak eta Gestoraren Olentzerok herriko txoko ugari pasako dituzte kantu kantari. Biak arratsalde partean aterako badira ere ibilbide ezberdina izango dute, baina azken bi urteetako ohiturari jarraituz amaieran herriko frontoian elkartuko dira.

Parrokiko taldeak urte asko daramatza Jaiotzarekin kantari. Abenduaren 24an arratsalde partean baserritar jantziak armairutik atera, parroki aurrean bildu eta urteroko ibilbidea egiten dute gabon kantuak abestuz. Aurten ere ez dute hutsik egingo eta hor ibiliko dira arratsaldeko 16.00etatik aurrera auzoz auzo Jaiotza aurrean dutela.



Euskal presoen aldeko olentzero, berriz, ekitaldi berriagoa da. Duela sei urte inguru Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak Euskal Presoak Euskal Herriratzeko eskatuz olentzerekin kantu kantari ibiltzea erabaki zuen, eta azken urteetako ohiturari jarraituz hor ariko dira kantu kantari.

Aurten ere, azken bi urteetan bezala, Gaztañagako errotondan elkartu eta elkarrekin joango dira frontoira. Bertan, giza eskubideak aldarrikatu eta euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuko dute Gure Artera Bilguneak antolatutako duen ekitaldi berezi baten bidez.

Barrikotea, sardina zarra eta gaztainak trikitixa eta bertsoekin inuxente egunean

Inuxentada izango ote da? Batek daki. Zuek erabaki beharko duzue frontoi aldera agertu ala ez. Guri esan digutenez behintzat barrikotetik sagardoa edan eta sardina zarrak edo gaztainak jateko aukera izango da abenduaren 28an. Eta ez hori bakarrik, Unai Agirre eta Mikel Legarreta bertsolariak hara eta hona ibiliko baitira herriko trikitilariekin.

Azken urteetako egoera berean egongo dira usurbildarrak inuxente eguna iristen denean. Sagardo Egunaren lagunek barrikotea dagoela iragartzen dute baina azken momenturarte ez da jakiten inuxentada izango den ala ez. Azken urteetan nahikoa jan eta edateko aukera izan



da, baina ez ahaztu duela bi urte ez zela horretarako aukerarik izan, ez baitzuten ezer prestatu.

Inuxentada ez bada arratsaldeko 19.00ak aldera hasiko da festa. Sagardo Egunaren Lagunek barrikotea jarriko dema plaza inguruan eta horrez gain sardina zarrak eta gaztainak banatuko dira barruak asetu asmoz. Aurten, gainera, guzti honi bizitasuna emateko triki-bertso kalejira antolatuko dute *Noaua!* Kultur Elkarteak, Usurbilgo Tabernarien Elkarteak eta udalak. Unai Agirre eta Mikel Legarreta bertsolariak tabernaz taberna ibiliko dira herriko trikitilarien laguntzarekin.

Herriko Dj.-ak jarriko dute musika frontoian urtezahar gaupasan

Urte zaharrari agur esan eta berriari ongietorria emateko ekitaldiren bat antolatzen zaleak gara Usurbilen. Azken 10 urteetan gaueko 2.00etatik aurrera musika talderen batek alaitzen zuen frontoi ingurua eta diskotekak ere bere tarte izaten zuten, baina aurtengoan ez da horrelakorik izango. Frontoia diskoteka bihurtuko da oraingo honetan.

Urtezahar gauean estilo ezberdinetako musikarekin dantza egiteko aukerarik ez da faltako. Azken urteetan taberna giroa nagusitu da eta frontoian izaten zen musika taldeak ez zuen arrakasta haundirik izaten. Horregatik, urtezahar gaueko antolatzaileek frontoia, urtean egun batez,

diskoteka bihurtuko dute. Musika jartzen ohituak dauden herritarrak izango dira gainera urtezahar diskotekako disk-jockeyak, Jokin Eizagirre, Joseba Unanue, Haritz Harreguy, Iker Alduntzin, Karlos Aizpurua eta Josu Iparragirre arduratuko baitira horretaz. Frontoiak diskoteka itxura izan dezan

behar bezala apainduko dute eta nahi duenak oholtza gainera igo eta beste guztientzat dantzatzeko aukera ere izango du. Musika ekipoa, berriz, egun horretarako bereziki kontratatutakoa izango da. Hori bai, diskoteka hau berezia izango da, bertan ez baita edaririk salduko.



Erregeak urtarrilaren 5ean arratsaldeko 19.30etan iritsiko dira frontoira

Erregeen kabalgatak ere tartetxo bat izango du herrian aurtengo honetan. Urdaiaga aldera arratsaldeko 18.00ak aldera iritsiko badira ere, herriko zenbait auzoetatik pasa ondoren 19.30ak aldera izango ditugu herriko frontoian. Beraz, badakizue, karameloak hartu eta opariren bat jasotzeko erregeak ikusi nahi badituzue...

Hala ere, oparia eskatu nahi duzuenok goizean esnatu beharra izango duzue. Izan ere, 11.30ak aldera iritsiko da erregeen "kartero" zuen eskutitzak jasotzeko asmoarekin. Azken urteetan, txiki eta haundi, herritar asko gerturatzen da erregeen ordezkaria ikustera eta aurten ere opariak jaso nahi badituzue badakizue zer egin.



Arratsaldeko 18.00etarako erregeak Urdaiagan izango dira. Bertako ermitan atsedean hartu eta Santueneatik barrena Kalezarrera joan, hemendik Atxegaldera pasa eta 19.30etarako herriko frontoian izango ditugu Melfxor, Gaspar eta Baltasar. Hala ere, hauek laguntzaileak

beharko dituzte eta Ziortza Gazte Elkartearen esku utzi dute hauek biltzearen ardura. Beraz, antortxero izan nahi duten 15 urtetik gorako neska-mutilek urtarrilaren 3an arratsaldeko 20.00etan bilera izango dute Ziortza Gazte Elkarteak parrokian duen lokalean.

Hau konpontzeko mugitu beharra dago

Azken hilabeteotan bizi dugun giro politiko nahasiak egoera oso tentsionatu eta gogorra eragin du. Zenbaitetan badi-rudi irteerarik gabeko tunel madarikatuan gaudela, hau konpontzerik ez dagoela, fatalitate bazterezina eta etengabea dela.

Gizarteak oro har hori guztia baldin badauka buruan bueltak, zeresanik ez guk. Noizbait ikusiko al ditugu gure seme-alabak, aita-amak, anai-arrebak edota lagunak herrian, kalean, etxean? Sufrimendua eta samina baretu ezezik, areagotzen ari dela esango genuke. Urteetako zama gero eta astunago suertatzen da eta gero eta zailago eramaten.

Egoera zakartu honek gainera, aspalditik jasan izan dugun diskriminazio "demokratikoa" gehiagotu egiten du. Bi klasetako biktima edo kaltetuak daude hemen, edo bakarra esan beharko genuke? Izan ere, egunero ari gara ikusten eta entzuten komunikabide gehienek, interes zehatzak jarraituz, nola alde batekoen samina erakutsi, saldu, kontsolatu edo saritzen duten besteena ezkutatzan edo gutxiesten duten bitartean. Nonbait gure senitartekoak eta guk geuk merezia dugu, lehenengoak egin dutenagatik (oraindik epaituak izan ez badira ere) eta guk horrelako seme-alabak munda ekartzekoagatik.

Hau irakurtzen ari zareten askok pentsatuko duzue exajeratzen ari garela, hori ez duela inork sinesten, hemen Euskal Herrian behintzat, badakigula hori ez dela horrela, gauzak konplexuagoak direla. Baina pixkanaka-pixkanaka, ustekabeen gure burmuinetan sartzen ari diren mezuak dira hau guztiak eta konturatu gabe bere eragina dute.



Hori da gure baitan poliki-poliki sartzen ari direna: hemen ez zagok ezer egiterik, hor konpon presoak eta bere arazoak, alferrikakoa dena, ni ondo natxiok behintzat eta...

Urteak, ordea, zeharo kontra-ko erakutsi digute. Hemen ez dagoela ezer mugitzen ez bagara, astintzen ez badugu, borrokatzen ez bagara. Egoera gogorretan eta gogorragoetan, gehiagoko.

Eta horrelakoan gaude gaur egun, egoera oso gogorrean. Egunero ikusten ari gara gure senitarteko preso eta iheslarien bizimodua gero eta zailago bilakatzen ari dela. Ikusi besterik ez dago espetxeetako bizi-baldintzak nola gogortu dituzten (une honetan bertan Patxi Segurrola herritarra zigor-ziegetan dugu La Santé-ko espetxean), dispertsioa indarrean diharduela (non daude presoak Euskal Herriratzen ahalegintzeko agintari eta instituzio askoren promesak?); beren legeak urratsen badituzte ere, espultsioak eta estradizioak etengabeak direla; guztion lotsarako, tortura eguneroko ogia dela.

Baina egoera larritze hori ez da berez etortzen, helburu eta arrazoi jakin batzuek eraginda baizik. Ez gara sartuko hemen azterketa xipleetan noren errua ote den edo ez, ez baitago aski lekuri arazo hain konplexua bi lerrotan

azaltzeko eta gainera, gure ikuspegia soilik azalduko genuke.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu aukera hau pasatzen utzi pare bat gauza argi eta garbi adierazi gabe:

1) Guk ez dugu errekonozimendurik, dominarik eta malkotan laguntzailerik nahi. Guk nahi duguna da malko gehiagorik ez izatea, inongo aldean; gure senitartekoak gurekin izatea nahi dugu eta inor gehiago egoera

horretan aurkitu ez dadin; jende-ari mobilizatzaera deitu behar ez izatea da nahi duguna eta horretarako EGOERA HAU ERROTIK KONPONDU BEHAR DA edo hobeto esanda, KONPONDU BEHAR DUGU.

2) Gaurkoa egoera latza baldin bada ere, are eta erantzukizun handiagoz ekin behar diogu. Lehen ere ezagutu ditugu horrelakoak eta kalera irten gara, gizartea jabetu arazi dugu mugitzeko beharraz, indar politiko, sindikal eta eragile sozialak astinaz ditugu. Orain ere egoerak tamainako ahalegina eskatzen du. Beraz etsipena alde batera utzi eta mugitu beharra dago. Gure Herriak, gure senitartekoak, gu guztiok merezi dugu eta.

Oharra: datozen asteetan zenbait ekimen burutuko dira. Parte hartzera deitzen zaituztegu eta bereziki herrian bertan egingo direnetan:

23an: Manifestazioa Donostian Usurbilen:

24an: Olentzero erreibindikati-boa Euskal Presoak Euskal Herrira.

26-30eraltxialdi-gose greba.

30ean: Herriko gudariei omenaldia. Aurten omenaldi berezia Joxe Martin Sagardiari, bere erailketaren 20. urteurrenean.

Mitard edo zigor-ziegak

Patxi Segurola usurbildarra, beste sei euskal presok bezala, protesta burutzen ari da La Santéko espetxean joan den azaroaren 15etik, gutxiengo bizi-baldintza duinak lortzearren eta, batez ere, beste kideekin harremana izateko eta isolamenduaren aurka.

Egun zigor-ziegetan (mitard) aurkitzen da. Bertako bizi-baldintzak azalduz idatzia bidali digu. Hona hemen, laburbilduz bertan esaten duena:

- 3 x 2 m. eta 3,5 metro altuerako "gela", irekitzen ez den metro bateko leihoarekin, kristalaren orde, ia argirik sartzen uzten ez duen plastiko lodiarekin. Leihoak barroreak eta metalezko sareak ditu kanpoan zein barrualdean.

- Argia: 60 w. bonbila bat

sabaian sartuta, kanpotik piztu eta itzaltzen dena. Bartzuetan gau osoa piztuta uzten diete edo piztu eta itzali ibiltzen dira.

- Ate bikoiztua. Barrukoa barroteduna eta kanpokoa leihatila txiki batekin.

- Ohea, apala, mahai gisako zerbait eta aulkia dira bertako "altzariak", guztia zimentuzkoa eta lurrari lotuak. Dena grisa, bai paretak, bai lurra, bai sabaia, bai altzariak.

- Komun turkoa eta bere gainean zulo txiki bat paretan iturri gisa. Jaboi txiki bat eta eskuoihala. Hori da daukaten guztia garbiketarako, bai norberaren zein plater, lurra edo komunaren garbiketarako. Astean bitan soilik ateratzen dituzte dutxara eta orduan bakarrik mozten dute bizarra. Soinean dara-

maten arropa bakarrik daukate.

- Hotza, hezetasuna eta isiltasuna dira nagusi. Funtzionarioak kenduta, ez dute inor ikusten. Irakurri edo idatzi; hori da egiterik duten gauza bakarra baina argi falta dela eta (mahaia kontrargitan dago gainera) oso zaila da.

- Egunean ordubete ateratzen dituzte 'kanpora', bakarka, patio txiki batera, harresitua, zero gisa, 2,5metroko altueran, barroreak eta metalezko sarea duena.

BIZI-BALDINTZA DUINAK
GURE SENITARTEKOENTZAT !

ISOLAMENDURIK EZ, SAKA-
BANAKETARIK EZ !

ETXEAN NAHI DITUGU!

Usurbilgo Senideak

Organo musikaren emanaldia

Abenduak 23an, larunbatean, Salvatore elizsan organo musikaren emanaldia izango dugu.

Organo musika elizkizunekin oso lotua egon da beti, eta hori azpimarratuz aurtengo honetan musika emanaldia elizkizunarekin, hau da, mezarekin txertatuko dugu. Beste era batean esateko, organo kontzertua mezaren barruan kokatuz egingo dugu.

Organo-jolea Shanti Banda zumaiar gaztea (20 urte) izango dugu; gaur egun Donostia-ko kontserbatorioan ikasketak burutzen ari dena.

Kontzertuak 4 musika obra izango ditu:

Lehena, meza aurretik entzungo dugu. Buxteude kon-

posagile alemaniarraren "Preludioa eta fuga" (sol m).

Bigarrena, mezaren barruan, ofertorio garaian. Antonio Cabezón-en "Pavana con su glosa".

Hirugarrena, jaunartze garaian. J.S. Bach-en koral bat: "Zatoz sinesgabeen salbatzailea".

Laugarrena, amaieran. Alberto Ginastera-ren "toccata, villancico e fuga".

Lehen pieza arratsaldeko

7:45etan entzungo dugu. Bigarrena eta hirugarrena mezaren barruan, eta laugarrena, amaieran, 8:45ak aldera.

Organoaren lagunak



Joxe Martin Sagardia hil zutela 20 urte beteko dira abenduaren 30ean

Abenduaren 30ean Joxe Martin Sagardia *Usurbilen* heriotzaren 20.urteurrena beteko da. Hori dela eta, urtero egin ohi da egun horretan herriko gudari hilei (Nazkaz, Arrantzale eta Usurbil) omenaldia herriko frontoian, baina aurten zer bait berezia egin nahi dela iragarri dute antolatzaileek. Guk ere herriarentzat hain samintsuak izan ziren 1980ko azken egun haiek gogora ekarri eta Joxe Martin Sagardia zertxobait gehiago ezagutu nahi izan dugu erreportaia honetan.

Joxe Martin Sagardia *Usurbil* 1980ko abenduaren 30ean hil zuten Miarritzen. Egun batzuk beranduago, "Batallón Vasco Español" deritzon talde armatua Joxe Martin errefuxiatuaren hilketaren egile aitortu zen Bilbon "Efe" agentziak zuen bulegora egindako dei baten bidez.

Goiz hotz hartan, egunero egin ohi zuen bezala, kotxez joan behar zuen lantokira, Hendaiaiko tailer batzuetara. Autoraino iritsi, Pirineo Atlantiarretako matrikula zuen Renault 12 berderaino, eta denbora pixka bat eman zuen izotzak hartutako kristala garbitzen barrura sartu baino lehen. Autoa martxan jarritakoan leherketa batek Joxe Martinen ibilgailua txikitu zuen. Leherketaren indarrak bi hankak ebaki zizkion, eta Joxe Martinen hiltza burdin txikituen artean gelditu zen.

Usurbil hiltzeko erabilitako metodoa bi urte lehenago Jose Miguel Beñaran *Argala* hiltzeko baliatu zuten bera zen: goma-2 kilo batzuk, hari bitartez lehortarazteko sistema batekin.

Erahilketa izan zen egun berean, 1980eko abenduaren

AGUR JOXE MARTIN

Nun hago nora joan haiz gure lagun Joxe Martin hirekin bildu nahi diagu hagoken tokitan hire heriotzak utzi dik Euskadi osoan min hagoken lekuan izantzak atsegin.

Hiri deitzen ziteken Joxe Martin "Usurbil" askatasunaren bila beti itzan ibil denok ba zekiagu nortzuk haueten hil hire heriotzatz ez gaituk egongo ixil.

UCD ez da bakarrik hire hiltzaile alboan ba dizkik zenbait laguntzaile esanez dabilzanak direla abertzale baita gainera ere pakearen zale bazekiagu nortzuk dian herri askatzaile.

Lehergailu batek zatitu dik hire gorputz guzia zati hoitatik sortuko dek borrokarako azia

hi haiz herriarentzat askatasun haizia hi haiz herriarentzat egizko bizia.

Negarrez utzi dek gaur herri euskalduna gure artefik joan haizelako Joxe Martin laguna baina borrokkak beteko dik

hik utzitako hutsuna zihur egon ai lortuko dela independentzi eguna.

Usurbildarrok ez galdetu gertaera hau nola zuek ere eskeini herriari odola.

Jarrai zazute Joxe Martinek erakutsitako eskola ez badezute entzun nahi ezer ez dizuela ajola.

Gure artefik joan haiz askatasun herri bila hiretz oroitzen dituk Euskadi eta Usurbila. Ez diagu sinestu nahi hagokenik hila hire lanaren frutua egi bihurtu dadila egin deken guztiagatik hiri esker mila.

30ean hain zuzen ere, *El País* egunkariak zekarren albiste batean, polizia iturrien arabera ordurarteko euskal erbesteratuen aurkako atentatuek OAS erakunde frantses faxistako kide ohiek eginak zirela irakurri zitekeen: "Komandoko kide bakoitzeko eta ekintzako milioi bat pezeta" jasotzen omen zuten ordain gisa. Hala ere, lehen aipatu bezala, "Batallón Vasco Español"ek erahil zuten Joxe Martin.

Joxe Martin Sagardiaren aurkako ekintza Espainiako Gobernuak, Gobernu frantzesaren laguntzaz, Ipar Euskal Herrian euskal errefuxiatuen aurka martxan jarri zuen gerra zikinaren bosgarren erahilketa izan zen. Izan ere, gobernua-ren talde parapolizialek lehendik *Argala*, *Korta*, *Pantu* eta *Periko* errefuxiatuak hil baitziztuzten.

Joxe Martinen heriotza jakin bezain laister asanblada eta

mobilizazio ugari egin ziren herrian, baita Euskal Herri osoan ere. Udalak ere ezohiko plenoa deitu zuen eta bertan, alderdi politiko guztiek onartuta, honako mozioa onartu zen (euskaratuta eta laburbilduta):

1) *Usurbilgo Udalak herriko bizilaguna den Joxe Martin Sagardiaren erahilketa gaitzesten dugu.*

2) *Joxe Martinek herri honen askatasunaren alde bizia eman duen borrokalaria denez, ideia politiko guztien gainetik, bere pertsona omen-du nahi dugu.*

3) *Bere senitartekoei gure elkartasuna adierazi nahi diegu eta abenduaren 30a eta 31a dolu egun ofizialak deklaratzeko ditugu.*

4) *Udaletxeko balkoian ikurrina krespoi beltzarekin jarriko dugu eta herritarrei berdina egitera gonbidatzen ditugu.*

5) *Era berean, hurrengo egunetanegingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dugu.*

Gobernu Zibilak ez zuen udalak gehiengo osoaz adostutako mozio hau onartu eta Udaletxeko balkoitik ikurrina kentzeko agindua eman zuen.

Omenaldi ugari egin zitzaizkion

Joxe Martinen gorpua abenduaren 31ean ekarri zuten herrira, kasu hauetan egin behar diren tramiteak egin eta gero. Lehen omenaldia Miarritzen egin zitzaion eta handik muga igaro ondoren Usurbila ekarri zuten. Inoiz gertatu ez bezala, omenaldi hontan espainiar Kontsularen ordezkariak egon zen Joxe Martinen senitartekoei bere dolumina agertzeko. Garaiko egunkariek aditzera eman zuten "Espainiako gobernuaren aurpegi garbiketa bat izan zen, ekintza hauekin zeri-kusirik bazutela ezkutatzeko".



Usurbildarrek herriko sarreran itxaron zuten Sagardiaren gorpua.

Muga igarotzeko zailtasun ugari izan bazituzten ere, hilkapera zeraman kotxearen atzetik beste 40 kotxe zituztela iritsi ziren herrira. Errepide nagusitik etorri ziren Lezo, Orereta, Donostia, Lasarte eta Usurbil gurutzatuz. Herri hauetan gurtietan ere ehundako herritar bildu ziren Joxe Martini azken agurra emateko.

Behin Usurbila iritsi ondoren, bere lagunek gorpua bizkarrean hartuta bere amaren tabernara eraman zuten eta bertan ezarri zen hilkapera.

Milaka lagun bildu ziren herriko frontoian

Hurrengo egunean, urtarrilaren 1ean hain zuzen ere, bere hileta egin zen herriko frontoian. Milaka lagun bildu ziren bertan- 4000 eta 6000 pertsona inguru orduko Eginek kale-ratu zuenaren arabera- Joxe Martini azken agurra ematera. Orduan HASiko buruzagia zen Santi Brouard eta beste HBko buruzagi batzuk, Jokin Gorostidi tartean zela, parte hartu zuten omenaldian. Urtarrilaren 3an, berriz, Miarritzen manifestaldi jendetsua burutu zen Joxe Martinen erahilketa salatuzko.

Joxe Martin Arrasateko Lanbide Eskolan hasi zen, baina ez zuen luzaroan iraun. Lehenengo mailan bi gai utzi zituen eta berriz errepikatu behar izan zuen. Berak ezetz eta amak herriko lantegi bateko nagusiarekin hitz egin zuen zeukan lanik gogorrena eman ziezaion nazkatu eta berriro ikasketei helduko zien esperantzaz. Ez zuen lortu, eta azkenean Michelin enpresako kooperatiba batean lanean hasi zen harakin modura.

1973an herria utzi behar izan zuen

1973ko abenduaren 3an, aita hil eta hilabete gutxira, herria utzi behar izan zuen. **Elena Zalduak**, bere amak, era honetara gogoratzen du egun hura: "Goizaldean lagun batek deitu zuen etxeko atera. Joxe Martinekin egon nahi zuela esan zidan, ehizera joateko, eta nik esan nion lo egiten uzteko ordu haietan. Enkargua eman behar ziola esan zidan. Biak logelan zuekela Goardia Zibila zebilela ikusi nuen. Zer gertatzen zen galdetu nion, eta berak zera erantzun zidan: badakizu ama, jendea edozer dela eta



eramaten dute, eta badazpada amonaren etxera joango naiz."

Biharamunean telefonoz hots egin zuen etxera: "Egun batzuetan ez naiz azalduko". Joxe Martinen lagun bat atxilotu zuten eta Goardia Zibila

Erailketa izan baino astebate lehenago familiaren bisita izan zuen

etxera eta lanera joan zitzaion bila. "Urtarrilaren 21era arte ez nuen bere berririk izan, Donostiako danborradara arte. Iparraldetik deitu zidan orduan, eta ikustera joateko eskatu. Elkarrizketa haren ondoren ulertu nuen batzuetan etxera oso berandu etorri eta galtzak erabat lokaztuta iristearen zergatia. Nik azalpenak eskatzen

nizkion eta berak zera erantzuten zidan: Ez kezkatu, ni ondo nago".

Bi aldiz konfinatua

Ipar Euskal Herrian beste erbesteartu batzuekin bizi izan zen. Maiatzaren 15ean Donibane Lohizunen atxilotu zuten Argalarekin zegoela. Honek muga igaro berria zuen eta Joxe Martinek pistola bat zermanez sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

1976ko apirilean, Espainiako errege-erreginak Frantziara egindako bidaiara zela eta, polizia frantsesak hainbat erbesterratu atxilotu eta Yeu irlara konfinatu zituen lau hilabetez. Bera ere tartean zegoen. Ipar Euskal Herrira itzulita, 1977ko maiatzaren 26an atxilotu eta Porquerolles-era eramane zuten.

Ama eta anai-arrebak maiz joaten ziren bisita egitera Miarrizteko etxera, amari denboraldi batez kanpoan egongo

zela esaten zionean izan ezik. "Parisera noa bidaiara, esaten zuen... baina nik banekien zein bidaiara mota zen", dio Ele-nak. Semea ikusi ezin zuen denbora hauetan, berezko goibeltasunari Goardia Zibilaren bisitak erantsi behar zitzaizkion. "Oso maiz etortzen ziren tabernara, etxera azaldu ote zen galdezka, bazekitela Bizkaian edo Donostian zebilela..."

Erailketa izan baino astebate lehenago familiaren bisita izan zuen, eta Joxe Martinek lasaitu egin nahi izan zituen Ipar Euskal Herrian ultraeskui-naren jardura zela eta. "Lasaitu ama, Gabonak datoz eta ziur ez dutela ezer egingo. Hala ere, hiltzen banaute zuk indartsua izan behar duzu eta nitaz harro sentitu. Nik borrokan ari zea erabaki dut herri honek merezi duelauste dudalako", esan zion amari azkeneko aldiz.

Agurtzane Solaberrieta

"Angelun 22 egunetako gose greba egin ondoren, errefuxiatu karta lortu genuen"

Joxe Martinek eta biok batera ihes egin genuen, 1973ko abenduaren 3an. Egun horretan guardia zibil ugari zebilen herrian, eta egokiena ezkutatzea izango zela esan ziguten. Bakoitzak bere bidea hartu bagenuen ere, 1974ko urtarrilaren 19an elkar topo egin genuen etxe batean, eta hurrengo egunean muga elkarrekin igaro genuen. Han eta hemen ibili ginen etxebizitza bat topatzeko ahaleginetan eta, azkenean, Miarriztera joan ginen bizitzera. Biok elkarrekin geundela, Periko etorri zen gurekin bizitzera. Bi urte egin genituen Miarrizten, 1974tik 1976 urte arte.

Borroka ugari izan genituen errefuxiatu karta lortu ahal izateko. Errefuxiatu izaera ez zigutenezonartzen, gose greba egin genuen Angeluko eliza batean. Guk 22 egun egin genituen, eta, azkenean karta eskuratu genuen. Gose greba-



Joxe Mari Arriaga "Motza"

ren ondorena ez zen ona izan, izan ere, berehala aurrean topatzen genuen guztia jaten hasi baikineroak bezala, eta hori gure kalterako izan zen.

Lehen aldiz atxilotu zuten egun hura ere gogoratzen dut. Argalarekin zegoela, pistola bat harrapatu zioten eta atxilotu egin zuten. Etxea garbitze-

ko agindua eman zidaten, laister polizia han izango nuelako. Zortea izan zuen, ez baitzuen denbora asko eman espetxean.

Gero, banandu egin ginen, ni Maulera joan nintzen. Bertan nengoela jakin nuen Joxe Martin hil egin zutela Miarrizten. Oso gogorra izan zen hori niretzat. Inpotentzia, gorrotoa, samina... dena nahastuta nituen. Ez dut sekula egun hura ahaztuko. Joxe Martin oso pertsona ona, alai eta irekia zen. Egoskorra ere bazen, bai organiza-zioan, bai izaeraz. Lagunen oso laguna zen.

M MANPEL, S.A.

- Bulegoetako materiala
- Liburudendetako artikuloak

Praxton  **Unipapel**

Urte berri on!

Ugaldea industrialdea, 19. pabiloia
20170 USURBIL
Telf.: 943 36 58 92 - Fax: 943 37 16 86

**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA
BAXU KOMERTZIALAK**



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALFA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA FRAGILEAGATIK,
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALFAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT, TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK, EGUNeko ARGIAKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN, KOTXEAK GARBITZEKO LERKIAKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANZIALTUAK,
SARRERAK: 500.000 pezetarik, HILEKOAK: 15.000 pzt,

MENDIGAIN S.M. FRAGILE INMOBILIARIOA, Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

GAZTE MODARI ESKEINITA

möTIVI
MOTIVAZIÓNEKIN



LACOSTE

**GIZONEZKO, EMAKUMEZ-
KO**

**Gabon zoriontsuak
pasa ditzazuela
URTE BERRI ON!**


BRANCH (GIZONEZKOEN MODA)

Ermenegildo Zegna

BURBERRY

GANT

PATRI JATETXEA



ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

Egunero bazkariak eta afariak

Kale Nagusia, 6 Telf: 943 36 27 25

sagardotegia
txinparta
jatetxea



Urte guztian zehar zabalik!

- . Razioak, bazkariak, afariak, pin-txoak
- . Sagardotegiko menua
- . Plater

Urbil Merka-
taritza
gunea




Telf: 943 37 66 98



TXIMINIA ALTZARIAK



Urte berri on!



Poligono Osinalde
USURBIL (Gipuzkoa)
Tfn.: 943 37 09 66 - Fax: 943 37 29 32

ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Alzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Zorionak eta urte berri on!



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Telf: 943 36 00 80

MARGOAK- PAPERAK

FERNANDO PINTORAK

ENPAPELAKETAK ETA PINTURAK OROKORREAN

Zorionak eta urte berri on!



Kale Nagusia, 1
Tlf: 36 60 19- 36 34 60

INTZA Ilepaindegia

- X ILEPAINDEGINTZA
- X MANIKURA
- X PEDIKURA
- X DEPILAZIOAK
- X MASAJEAK
- X SOLARIUMA

% 10aren beherapena
25 urteko beherako
gazteei eta
Noauako bazkideei!

Telf: 943 36 36 41

Zorionak eta urte berri on!



Txiriboga Taberna



Ondo ibili
Gabon jaietan!

Pintxoak, bokatak
plater konbinatuak...

Irazu kalea, 3 -Telf: 943 37 00



AITZAGA
HERRIKO
TABERNA

Pintxoak, bokatak,
plater, konbinatuak,...

Euskal presoak
etxera!

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



J. Orbegozo



Zorionak eta urte berri on!

Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

Helbide berria

Oria etorbidea 4, behea (Errekatxo jatetxearen ondoan).



I. URRUZOLA AROZTEGIA



Zorionak eta
urte beri on!



Zure konfidantzazko arotza
helbide berrian

- Aroztegi orokorra.
- Armario enpotratuak.
- Etxeko erreformak.
- Parket flotantea...

Tel.: 943 371200
Mobila: 610 413131



Usurbilgo Eusko Alderdi Jeltza-
leak 2001. urte baketsua opa
dizue
Eguberrion!!

U surbilgo Udala
presoak etxeratzen,
euskara bultzatzen
nekazaritza indartzen
eta aberria **eraikitzen!**

Urte berri on!



Noqua!!
KULTUR ELKARTEA

2001. urteko egutegia ale honekin batera eskuratu ahal izango duzu

Eguberri zorionsuak opa dizkuzuegu!



MAPFRE
ASEGURUAK

Ana Olasagasti

Etxebeste kalea, 9 Telf: 943 36 00 83



LEIHO- FABRIKATZAILE ONENA

Itxitura mota guztietan espezializatua
Urte berri on!

VENTANAS
SAN MIGUEL

OSINA KALEA, 6
943/ 36 24 57
20170 USURBIL


eusko
alkartasuna

Mende berri on eta paketsua opa dizuegu usurbildar guztioi!



Kale nagusia, 2
Fax : 36 60 21

mota guztietako errotuloak

IBILGAILUAK - ERAKUSTORIAK
PANRARTAK - KARTELAK

Jaiak ondo pasa !

Elexpe
ileapaindegia

Estetika zentroa

Tatuaiak
Betileen trukaketa eta permanentea
Estetika
Solariuma
Muna Lurra, 2

Zorionak eta urte berri on!

Telf: 943 37 04 62

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



**Zorionak
eta
urte berri on!**

SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK


PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Ekatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

M I K E L
A R R A I N D E G I A



URTE BERRI ON!

Alperroburu, 1
Telf; 943 36 63 56

ANGULAS
MANTEROLA



Eguberri jai
zoriontsuak opa diz-
kizuegu guztioi!

Telf: 943 36 07 77 Faxe: 943 36 35 85

A g i n a g a



Imanol Zubiondo: "Akordeoiak etorkizun polita du, jendea indarrarekin dator"

Bederatzi urte besterik ez zituela hasi zen akordeoia jotzen eta Lasarte-Oriako Zero Sette Akordeoi Orkestrako kide izatera pasa zen gero. Aurten, pasa den urtean bezala, "Cantabria" Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa irabazi dute Torrelavegan. Lan handia egiten dute horrelako sariak eskuratu ahal izateko, eta epaimahaiak beraien lana aintzakotzat hartzea oso garrantzitsua dela dio Imanol Zubiondok.

Noiz hasi zinen akordeoia jotzen? Zerk bultzatu zintuen?

1980. urtean hasi nintzen, bederatzi urte nituela. Lagunak soinua jotzen ikusten nituen eta eskolaz gain beste zerbaite egiten hasteko gogoia nuenez, horretan hasi nintzen.

Usurbilen hasi al zinen?

Ez, Lasarten hasi nintzen Antonio Mercerorekin ikasten. Usurbilen beranduago hasi ziren eta musika eskola martxan jarri zenean hemen geratzen hasi ziren.

Talde honetan ibili al zara hasieratik?

Ez. Beranduago izan zen hori. Talde hau 1987. urtean sortu zen eta hamalau urterekin hasi nintzen han.

Zero Sette da taldearen izena. Zer dela eta jaso zuen izen hau?

Orkestra sortu zenean tresnak lortzeko laguntza eman zigun Italiako Zero Sette enpresak eta laguntza horren ordainetan taldeari izen hori jarri genion.

Asko entsaiatzen al duzue?

Asteazkenetan bi ordu inguru ematen ditugu eta larunbatetan beste hiru ordu. Gainera etxean ere bere lana eskatzen du. Obrak prestatu behar direnean bakoitza etxean bere kabuz aritzen da eta entsaioetan denon artean hobetzen ditugu gazak.



Jende asko al zarete taldean ?

Garai batean hogeita hamar pertsona edo ibili ginen, baina orain hogeitaz gutxiago.

Saio asko egiten al dituzue?

Sei bat finkoak izaten dira, bai Lasarten edo baita beste Kultur Elkarte batzuekin batera eskaintzen ditugunak hain zuzen ere. Kanpora ere joaten gara zenbait asteburutan eta beste estatu batzuetara joaten saiatzen gara.

Zein da jendearen jarrera? Nolako harrera izaten duzue?

Jendeak ez du interes handiegirik erakusten. Musika klasikoa eta garaikidea eskaintzen saiatzen gara eta klasikoan mugitzen baldin bazara, akordeoia tresna berria izanik ez du onarpen gehiegirik. Bestetik, orkestra edo talde moduan gazte jendearen aldetik ere ez du onarpenik.

Akordeoiak gain beste musika tresnarik jotzen al duzue?

Orain hauspozko akordeoia, akordeoi elektronikoa bat, akordeoi baxua eta perkusioa ditugu.

Talde asko ibiltzen al dira?

Bai. Gertatzen dena da Estatu espainiarrean Euskal Herrian daukela talde gehienak.

Aurten ere, iaz bezala, Torrelavegan egindako "Cantabria" IX.

Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan lehenengo saria jaso duzue Oherzeko Kategorian. Nola bizitzen dituzue garaipen hauek?

Alde batetik egin duzun lana aintzakotzat hartzen dutela ikusten duzu, baina bestetik ez duzu daukazunarekin konformatu behar, hobetzeraz jo behar duzu. Dena den, indarra ematen dizu lan horrekin jarraitzeko eta asko animatzen zaitu.

Zer eskatzen da txapelketa horietan?

Bi obra eskaintzen dira. Bata derrigorrezkoa da eta taldeak duen teknikaren maila neurtzeko balio du, eta bestea librekoa da eta obra horretan interpretazio aldetik zer adierazten duzun neurtzeko erabiltzen da.

Maila altua al dago?

Bai. European egiten diren txapelketetan maila handia dago, teknika aldetik batez ere. Bestela, estatu mailan, Euskal Herrian dago mailarik altuena.

Nola ikusten duzu akordeoiaren etorkizuna?

Nik uste dut igotzen joango dela, baina talde dinamika horretan sartzea azkenaldi honetan arazo handiagoa da. Bestela egoera ona da eta jendea indarrarekin dator.

Xabier Pikabea: “Konexio falta izan da dimititzeko arrazoi nagusia”

Udalean bost urtez Euskal Herriarrokoko zinegotzi izan ondoren dimisioa aurkeztu zuen pasaden hilabetean Xabier Pikabeak. Euskara maite du, eta bizi oraindik gehiago. Euskal Sozialisten Biltzarrean ibili ondoren bera izan zen Euskal Herrian Euskaraz taldearen sortzaileetako bat eta frankismo garaian ere zinegotzi lanak bete zituen udalean. Dimisioa aurkeztu badu ere, ez da geldirik egongo, euskararen mesetan noski.

Nola sartu zinen udalean zinegotzi modura?

Espetxean nengoenean 1995-1999 legealdirako udalerako Herri Batasunako hautagaietako bat izan nahi al nuen galdetu zidaten eta zerrendan zazpigarrena jartzeko esan nien nik. Herri Batasunak zazpi zinegotzi lortu zituzenez udalean sartu nintzen.

Aurretik ere zinegotzia izan zinen ezta?

1969-70 inguruan, Frankismo garaian. Orduan hasi zen Usurbil euskararen normalizazioa egiten, orduan sortu zen ikastola, orduan hasi ziren etorkinen integrazio lanak, dantzari txikiak, txistu eskolak etab. Garai hartan Siadecok egin zuen inkestaren arabera Usurbilen %40ak hitz egiten zuen euskaraz. Pixkanaka-pixkanaka euskara normalizatzen joan da eta gaur egun euskara dakitenak %77a dira

eta %67-68ak hitz egiten du euskaraz. Portzentaiei begirata, Gipuzkoa mailan euskaraz gehien Usurbilen hitz egiten dela uste dut, fenomeno hau ez da inon gertatzen.

Nola zegoen udala euskara mailan zu sartu zinenean?

Garai hartatik hona udalean lan handia egin da euskara mailan. Joxe Mari Irazustak adibidez, lan handia egin zuen eta baita gero Iñigo Azpirozek ere. Lehen euskara kulturaren menpe zegoen, astean behin ere ez zuten ziurrenik euskara landuko. Iñigo Azpirozek eta bere taldeak euskarak hileroko trataera bat behar zuela ikusi zuten eta euskarari bere batzorde propioa jarri zitzaion. Lana bazegoen. Euskararen normalizazio planak goma bezalakoak dira, zenbat luzatu nahi den hainbeste lan dago normalizazio plangintzan.



Zinegotzi izan zaren bost urte hauetan zeintzuk izan dira euskara arloan lorpenik handienak?

Alde batetik aholku batzarraren sorrera garrantzitsua izan da. Bai kultura eta bai euskara arloan herriko taldeetako kideak nahiz edozein herritar biltzeko aholku batzarrak sortu ziren, eta bide batez herriari eman zitzaion hitza. Bestalde, *Noaia!* aldizkariaren sorrera ere garrantzitsua izan da. 1995 inguruan herrian Euskaldunon Egunkaria oso jende gutxik irakurtzen zuen, eta Argia ere bai. Orain jendeak, guk uste baino gehiago irakurtzen du *Noaia!*.

Usurbil UEMAn zu euskara zinegotzia zinenean sartu zen ezta?

Bai, halaxe da. Behin UEMAko bilera batetara joan nintzenean, gure herria oraindik UEMAn sartu gabe zegoen, Usurbil gora Usurbil behera behin eta berriz aipatzen zuten gure herria. Hori ikusita, nik azterketa bat egin nuen eta Usurbilek UEMAn sartzeko baldintzak betetzen zituela ikusi nuen. Komenigarria zen gure herria bertan egotea. Hainbat herrik bat eginik euskara arloan indar handiagoa egin diezaieke Osakidetza edo epaitegiak bezalako instituzioei. Horregatik UEMAn sartzeari aurrerapauso handia izan zen.

Zer eman dio UEMAk Usurbili?

UEMAri begira udalean bertan plagintza garran-

tzitsuak egin ziren. Ni sartu nintzenean euskara traketsa, ulerkaitza erabiltzen zen. Hori konpontzeko euskaraz trebatzeko ikastaroak eman ziren, herriari bere hizkuntzan hitz egin behar zitzaioela erakutsiz. Jendeak dexente ikasi zuen eta aurrerapauso nahiko handia eman zen. Hala ere, herriarekin hartuemanan dutenek urtero-urtero trebatze saioak egin beharko litzatekeela uste dut.

Herrian euskarari dagokionez zer aldaketa eman da urte hauetan?

Euskararik txarrena erdaraz hitz egitea da, baina hurrengo euskara traketsa, ulergaitza erabiltzea. Karteletan, adibidez, lehen euskara ulergaitza erabiltzen zen. Orain, berriz, horrelakoak gutxiago ikusten dira. Euskararenganako kontzientzia aldatu egin dela iruditzen zait eta herriak euskara askoz hobea erabiltzen du. Izan dugun borrokarik haundiena mintzamenarena izan da. Duela bost bat urte jende askok euskal gaztelaniaz hitz egiten zuen, euskaraz aurrea erdaraz gero... Azken urteetan herriak berak aurrerakuntza handia egin du, eta horren adierazgarri da azken legealdian mintzamina lau puntu igotzea. Orain beste inkesta bat egitera doaz eta ikusiko dugu ea zer ateratzen den.

Iaz beste lau urterako zinegotzi modura aukeratu zintuen herriak. Urtebete pasa ondoren dimisioa aurkeztu duzu. Zeintzuk izan dira diminitzeko arrazoi nagusiak?

Arrazoiak ugari izan dira. Ez dut uste kontu guztietan arrazoi osoa izango dudarik, bartzuetan arrazoiaren zati bat batek izaten du eta beste zatia besteak, norberak bestearena ez baitu ikusten askotan. Hala ere, arrazoirik nagusia nire eta Euskal Herriarrok-eko beste zinegotzien artean sortu den konexio falta izan da. Hor zibilborreste bat sortu da.

Zer dela eta?

Euskara arloan ikaragarritzko lan pila dago egiteke. Gaur egun dihoan martxan euskararen normalizazioa bideratzeko 150 urtetik gora beharko lirateke, eta hori ezinezkoa da. Hor proiektuak egin behar dira eta gero burutu. Baina horiek burutzeko baliabideak behar dira. Gaur euskarak bai kontabilitateak eta bai hirigintzak baino lan haundiagoa dauka, lau aldiz haundiago esango nuke nik. Giza baliabideak, berriz, hamar aldiz txikiagoak dira. Nik giza baliabide horiek eskatu beharra dauzkat. Merkataritza kanpainak, adibidez, izugarritzko arrakasta izan zuen. Baina guzti horrek jarraipen bat behar du. Iragarkiak ia

denak euskaraz jartzen hasi ziren, baina orain hainbat eta hainbat iragarki erdaraz ikusten dira.

Orduan komunikazio falta nabarmena izan da.

Bai. Euskarari zegozkion gauza asko eta asko ez zizkidaten komunikatzen, nolabait esateko baztertua eta ezindua sentitu naiz. Talde batek ez badizu laguntzen bakarka aritzea baino hobea zen uztea. Nik zera pentsatzen nuen: ni hemen eragozpen baldin banaiz euskararen mesedetarako banaioa etxera. Beste arrazoiak ere badaude, baina euskarari dagokionez hori da arrazoi nagusia. Askotan motor bat naizela esaten didate, oso aurreratuta joaten naizela, baina nik ez dut uste hori horrela denik.

Udalean euskarari behar besteko garrantzia ez al zaio ba ematen?

Ez zaio ematen, eta hori ez dut nik bakarrik esaten. Garrantzia hori ez ematea, orohar, politiko guztiena da. Xabier Mendiguren Kontseiluko arduradunak esan berri du politikariek euskara lehen mailan jarri behar dutela, eta zoritxarrez hori ez da gertatzen. Kontabilitatean adibidez, laupabost pertsona daude udalean, euskarari nahi izanik beste lau pertsona beharko lirateke, lana badago eta. Nik ez nuen eskatzen lau pertsona jartzea nik ia zertik eskatzen nuen pertsona bat liberatua izatea euskara arloan. Euskara idazkaritza deitzen zaiona ez da hori bakarrik, kultura, gazteria, itzultzaile idazkaritza lanak ere betetzen baititu. Eta horrela ezin da euskara aurrera atera.

Euskara teknikaririk ez zuten nahi beraz.

Euskal Herriarrokek udalean euskara teknikari bat jartzeko eskatu zidaten eta nik Lurdes Zubeldia jarri nahi nuen. Euska-



Euskararen alde gogor jardun du lanean udalean Xabier Pikabeak

ra teknikaria izateko euskal filologoa izatea ezinbestekoa zela izan zen jarri zuten lehenengo aitzakia. Engainatua izan nintzen, hori ez baitzen egia. Gero, berriz eskatzerakoan pertsonalgoaren kupoa beteta zegoela eta figura hori ezin zela sortu esan zidaten. Hala ere, beste sailetan langile berriak sartu dira, baina euskara arloan ez. Pena da, izan ere udalak lehen mailan izan behar du euskara eta politikoa horretaz jabetzen ez diren bitartean euskarak jai du. Bide honetatik jarraituz gero hizkuntza nagusiak aurrera aterako baitira, eta euskara ez. Ni motor bat izango naiz, baina besteak arrankatu gabe daude oraindik. Nik ez dut esaten arrazoi osoa dudarik, baina aurrez esan dudana esango dut behin eta berriz.

Euskara Aholku Batzarrarekin ere zerbait gertatu da ezta?

Herriak politikoengan sinisteko ezinbestekoa du instituzioetan parte hartzea. Nik euskara arloan plangintza bat egin nuen. Euskararen inguruan nor dabilta lanean? *Noaual!*, ikastola, AEK, Bertso eskola... badaude euskararekiko zeresana dutenak. horiei bakarrik ez zitzaien gonbitea egin, kulturako elkarte guztiei egin zitzaien deialdia. Hilabeteetan behin biltzen ginen eta talde polita zegoen. Honek bere frui-

tua ematen zuela ikusita sortu ziren beste Aholku Batzarrak. Aholku Batzar horiek nahiz eta erabakiorrak edo binkulanteak ez izan, Herri Batasunaren filosofiarekin, borondate politikoarekin, horko erabakiak binkulanteak izan daitezkeela argi gelditu zen. Euskara Aholku Batzarrak urtebete eman du udalean "Euskararen erabilera normalizatzeko behin-behineko premiazko plana" egiten. Beste zinegotziek ez dute inolako ekarpenik egin, sindikatuek ere ez... Azkenean plan honekin iskanbila sortu da.

Zer pasa da plan horrekin?

Aholu Batzarrak "Euskararen erabilera normalizatzeko behin-behineko premiazko plana" Euskara Batzordera eramateko agindu zidan, han diktamena eman genion eta alkateak plenoko gai zerrendan sartu zuen. Euskal Herritarrokeko bileran, ordea, mahai ganean gelditu behar zuela erabaki zen. Zergatik? Alkateari kontrako ekarpen ugari iritsi omen zitzaizkion. Baina ekarpenak egiteko plenoan onartu ondoren ez al da ba 15 eguneko epea uzten? Baietz, baina ekarpen horiek egin zituztenekin hitz egin behar omen zen plenoan onartu baino lehen. Nik hori ez nuen ulertu. Nire ustez plenoan onartu ondoren ekarpen horiek aztertu behar ziren,

baina Aholku Batzarrean, hemen landu baitzen plan hori. Alkateak, ordea, sentsibilitateak urratu zirela ere esan zidan. Nik Aholku Batzarrean mahai ganean utziko zela esan nuen eta hauek ere ez zuten ulertu eman zuten zergatia. Hemen sortu zen txispa. Ekarpene horiek Aholku Batzarrak aztertu behar zituela esaten nuen nik, eta ez alkateak eta bere aldamenekoak. Bi filosofia kontrajarri zeuden hor: batzuk jende gutxiagorekin gauzak hobeto konpontzen direla zioten, besteek, berriz, esaten zuten langilea herriaren zerbitzurako dagoela eta ez herria langilearen zerbitzurako. Nire ustez euskararen arazoa baldin bada alkateak ez dauka hor zertan sarturik. Sartzekotan maila pertsonalean sartu beharko luke, besteak bezalaxe.

Orduan, Aholku Batzarraren lana gutxietsia izan al zen?

Edozein udaletan alkatearen botere kontzentrazioa banatu behar da. Kultura, nekazaritza eta zerbitzuak, hirigintza etab. zinegotzien artean banatuz alkateak bere boterea horien gain utzi beharra du. Euskararen gaia dela? Euskara idazkaritzak bideratuko du berari dagokion mailetan, Aholku Batzarrean adibidez. Eta beste arloetan berdin. Alkate baten zat lagungarria da gainera. Mahai horiek gainera udala kontrolatu egiten dute eta politikoei sinisgarritasuna horik bakarrik etorriko zaie, bestela ez. Alkateak hirigintzan bere Aholku Batzarra sortuko balu gehiago kontrolatua izango litzateke eta herriak nahi dituen babes ofizialeko etxebizitzak egingo lirateke. Honela herrietan sortzen diren zurrumurruak desagertuko lirateke. Arlo guztietan Aholku Batzarrak sortuko balirateke herri baten batasuna etorriko litzateke segidan.



Xabier Pikabeak lan handia egin zuen Usurbil UEMAn sartu zedin



Koldo Lizaso: "Oztopo guztien gaineratik aurrera egin behar du euskarak"

Bat joan eta bestea etorri. Izan ere Koldo Lizaso "Dranba" izango da udalean Xabier Pikabearen lekua hartuko duena. Udal hauteskundeetan Euskal Herri-tarrokeko bederatzigarren zerrendagaia zen bera, eta zinegotzi izatearen kontua ustekabean etorri bazaio ere, herriaren alde lan egiteko prest agertu zaigu.

Bi urte eta erdi dituzu legealdi honetan lan egiteko. Zeintzuk izango dira zure helburu nagusiak?

Herri programa dago oinarrian. Usurbilen lan asko egin da talde lanean, bai euskara eta bai beste arloetan ere. Horregatik zentzu berean aurrera jo behar dugu, malgutasunez, inposatu gabe, gure bizimodua euskaraz egiten ohitzeko euskara aurrera atera dadin. Oztopo eta zailtasun asko daukela badakigu, baina aurrera egin behar dugu. Euskaldun bezala pentsatzen ohitu behar dugu eta horrek dakarren guztiarekin euskaraz bizitzen. Ahalegin hori guztiona da, zinegotziena, taldeena, aholku batzarrarena, euskara batzordearena eta udalarena ere bai.

Euskara arloan orain artekoaren hildotik jarraituko al da?

Euskara mailan tresna balio-garriak badaude eta zabalatasun osoz gauzak adostuz aurrera atera behar da euskara.

Ustekabean etorri al zaizu zinegotzi izatearen kontua?

Egia esan legealdi honetan zinegotzi izango nintzenik ez nuen uste. Gure taldearen zerrenda egin genuenean beste taldeei eskatzen genuenean eredu izan beharra geneukan. Bederatzigarren



zerrendagaia nintzen eta arrisku hori hor zegoen. Beste zortzi zinegotzi horiei edozei gorabehera gertatuaz gero badakizu hor zaudela.

Zinegotzi izatearekin batera asko aldatuko al da zure eguneroko bizimodua?

Herriaren alde, Euskal Herriaren alde lan egiten ohituta nago eta urte asko daramatzat hortan nire ahalegintxo eginez. Orain herriaren gertueko instituziotik lan egitea tokatu zaidanez leku batean edo egitura batean lan egin beharrean udalean burubeltzari lan egin beharko dut.

Zer batzorderen ardura izango duzu?

Orain arteko egitura mantenduz Xabierrek zituen ardurak hartuko ditut. Euskara batzordearen arduraduna izango naiz eta beste batzorde batzuetan arduradunaren aldamenean egongo naiz. Daukadan denboraren arabera herritik kanpoko egituretan ere parte hartuko dut, hala nola,

Udalbiltzako euskara adarrean, UEMAn...

Nola ikusten duzu herria euskara maila eta erabileraren aldetik?

Herri euskalduna da Usurbil, abertzalea, baina beti dago zer egin eta hobetua. Euskaldunen artean euskarazko harremana izan behar dugu eta egunero eta unero euskaraz bizitzen saiatu behar dugu. Euskaraz ez dakiena euskaraz ikas dezan eta euskaraz bizitzen saia dedin animatu behar dugu. Lan munduan, adibidez, hutsune handia dago eta zentzu horretan malgutasun osoz lan egin beharra dago.

Zer iruditu zaizu Xabier Pikabearen dimisioa?

Nik bere eritzia errespetatzen dut. Bera ahal duen guztia egiten ahalegindu da eta horretaz ez daukat zeresanik. Bakoi-tzak egiten du bere aukera, bakoitzak ikusten ditu bere mugak, bere gorabeherak eta Xabierrek aukera hori egin duenez errespetatu egin behar da.

H Herorrek esan



Ana Martinez
Bizkarre

Ez dut uste eraginik izango duenik. Arazoa lehen larriagoa zen, orain kontrol haundiagoa dago eta ez zait iruditzen inongo arazorik dagoenik. Gure etxean berdina jaten jarraituko dugu.



Iñaki Urkia
Kalezar

Guk ez dugu menua aldatuko hori dela eta. Ez zait iruditzen Euskal Herrian arriskurik dagoenik kontu horrek. Zentru haundietan arriskua haundiagoa izango da, baina ni lasai nago. Hemen bertako haragia asko jaten da.



Mertxe Pikabea
Aginaga

Ez zait iruditzen Euskal Herrian horrek eraginik duenik, hemen bertako haragia jaten baita gehienbat. Arazoa zaharraren haragiarekin etor daiteke, Gali zatik eta kanpotik asko ekartzen delako. Gainontzean ez zait iruditzen eragina izango duenik.



Antonio Agirre
Kaleberri

Guk berdin-berdin jango dugu. Orain azaldu da, baina aspaldiko kontua da hori. Lehen ere entzuten zen pentsu txarra ematen zitzaizela, eta lehen ere horrelakoak janda egongo gara. Herri txikietan gainera, ez zait iruditzen arriskurik dagoenik.



Joxe Zubiria
Kalezar

Ni lasai nago, ez zait iruditzen hemen horrelakorik dagoenik. Txuletak berdin jan ditugu aste honetan eta arriskurik ez dut ikusten. Lehen ere behi batzuk txarrak zirela esaten zuten eta orain hauek aterata dira, baina ez nau ardurutzen.



Kattalin Arzallus
Kaleberri

Ez zait iruditzen eragina izango duenik. Kontua dela iruditzen zait, tartean baten bat egongo zen, baina ez dut beldurrik. Lehen horrelako gauzak ere entzuten genituen, baina guk berdina erosten jarraituko dugu.



Mikel Balentziaga
Donostia

Zerbait zango du, bai. Gure etxean bestela ere haragi gutxi jaten dugu. Agian, hemengo haragiaren salmenta igo egingo da eta alde horretatik bertakoentzako positiboa izango da.



Naiara Arriola
Arrobitxulo

Eragin pixka bat izango du agian, baina ez dakit. Gogoratzen garenean, agian uko egingo diogu behiaren haragiari baina oraingoz denetik jaten dugu. Dena den egia da orain oilaskoa edo txerria gehiago jaten dugula.

RAMON HARATEGIA

Eguberri eta urte berri! Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Eguzkitza, 6 ☎ 36 29 70

Zendoia enea
Taberna



Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

- z ✓ Pintxoak
- o ✓ Eguneko
- r menuak
- i ✓ Bokatak
- o ✓ Plater
- n konbinatuak
- a ✓ Razioak,...
- k

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

IOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2º - Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54


INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Karlos Aizpurua bigarren Espainiako zesta punta txapelketan

Txapelik bereganatu ez badu ere bi final jokatu ditu Karlos Aizpurua usurbildarrak azken asteetan. Pasa den abenduaren 2 eta 3an Palentzian izan zen Espainiako binakako Zesta punta Txapelketa jokatu. Abenduaren 16an, berriz, Gipuzkoako klub en arteko txapelketako finala jokatu zuen.

Ez du zorte haundirik izan bi txapelketetan. Palentzian jokatu zen Espainiako txapelketa lau bikote ziren nor edo nor. Finaldrietako partiduan Kataluniako bikotea 35-28 hartu zuten mendean Karlos Aizpurua eta Koldo Rabalan andoaindarrak osatutako bikoteak. Finalean, ordea, ezin izan zuten garaipenik lortu. Galiziako taldea ordezkatzeko duten Gernikarrek 35-23 irabazi zieten. Ez du zorterik usurbildarrak, duela bi urte ere laugarren postua lortu baitzuen txapelketa berean.

Abenduaren 16an, berriz, Gipuzkoako klub en arteko zesta punta txapelketa jokatu zen Andoaingo frontoian. Andoaingo Gazteleku Pelota Elkarteak ordezkatzuz bigarren postua eskuratu zuten. Pelota elkarte bereko pelotariak izan zituzten aurrez-aurre, baina ezin izan zuten garaipena eskuratu. 35-25 izan zen partidako azken emaitza. Hurrengoan izango da!



N • I
 II n
 MIST
 S l r um, l z
 m k! t m n kur

AGENZIA
 Tlf.: 943 36 19 51

JUANTXO
 Burdindegia

Urteberrion!

Kalenagusia, 10
 Usurbil 37 00 08

KONPONABAYAR
 ALDARU

Giltzak kopiazen ditugu!

Zapatak, Kanpinak, Kremaierak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2 Tel: 943 37 27 95

ORBELDI
 MARKEL OLAIZOLA
 ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

GENERALI
 Aseguru Konpainia

Eguberrieta urteberrion!

Tlf: 943 37 18 07 Mobila: 617 332909
 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Osasunez urratu aurtengo Gabonak!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4 20170
 Tlf 37 08 78 **USURBIL**

Gabon onak pasa!

ZUBELDI

Zure kirol arropa eta material guztia!

Kale nagusia, 10 Telf.: 943 36 60 50



Iñaki Errekondo eta Mikel Arroyo lau eta erdian txapeldun eta erdian txapeldun

Pasa den abenduaren 3an jokatu ziren Aitzaga Elkarteak antolatzen duen lau eta erdi barruko binakako pelota txapelketako azken partiduak. Iñaki Errekondo eta Mikel Arroyok lortu zuten txapela Mikel Aranburu eta Arkaitz Portularrumeri 22-19 irabazi ondoren. Hirugarren postua, berriz, Inaxio Arruti eta Koldo Lizasok eskuratu zuten, 22-15 irabazi baitzuen Josu Errekondo eta Jokin Eizagirre-ri. Jokalarai onenaren saria Arkaitz Portularrumerentzat izan zen.



TRUKE
JANTZIAK
 Urte berri on!

 Erdiko kalea, 2
 Tel:37 34 81

E un k z k r k
ETXE ESTE
J TETXE
 On!
 Gabon jaietan!

 3 3 27

AGIRREZABAL
 estankoa
 Zorionak eta
 urte berri on!

 Kale nagusia, 27
 Telefonoa: 36 11 10

Urte berri on! *II ur*
ntz k

 Kale Nagusia, 2 Tel.943 36 59 43

Takolo, Pirritx eta Porrotx Usurbilen

Hiru pailazo hauek beren herria utzi eta festa giroan Usurbila etorri ziren pasa den abenduaren 17an. Oiardo Kiroldegian "Parrandan" beren azken lana aurkeztu zuten bi saio eginez, eta haur nahiz ugari bildu zituzten bertan. Etxefe-

roa bota, zaku laisterketa egin, buruhaundiekin ibili, harria jaso, txarangarekin dantza egin eta noski, parranda ere egin zuten Takolo, Pirritx eta Porrotxek kiroldegira gerturatu ziren guztien laguntzarekin.



Zumarteko abesbatza Katalunian

Autobusa hartu eta Katalunia aldera asteburu pasatzera joan zitzaigun Zumarteko abesbatza pasa den abenduaren 15ean. Duela hilabete batzuk Sant Cugat-eko haurren abesbatzakoak izan ziren Usurbilen eta oraingo honetan herrikoak Sant Cugat aldera joan eta bertako enxeetan egin zuten lo.

Larunbatean bi kontzertu eman zituzten: goizean Bañolasen eta arratsaldean Bañolasen. Hemen arrakasta handia lortu omen zuten, jen-

dea zutik jarrita denbora luzean egon baitzen txalo jotzen. Igandean, berriz, Bartzelona bisitatu zuten eta kalean abesten ere hasi omen ziren.

Agurne Alkortaren esanetan oso gustora etorri dira Zumarteko abesbatza osatzen duten haur eta gazteak. *"Harrera oso ona egin digute Sant Cugat-en eta gustora egon gara bertakoekin. Banaka edo binaka hangoen etxeetan lo egin dugu eta opariak eta guzti egin dizkigute handik aldegin baino lehen".*



Lehenengo txistorra mokadua aukeran Santo Tomas azoka eraberrituan

Txistorraz gain, izan zen beste protagonistarik pasa den igandeko I.Santo Tomas azokan, hamaika postuek osaturiko azoka eta Ixabel I.a, besteak beste. Berrikuntza ugrirekin etorri da, beraz, aurtengo Santo Tomas.

Pasa den igandean herriko pilotalekuak I.Santo Tomas azoka hartu zuen. Aurreko urteetan Donostiako egun handiaren aurretik herrian txistorra jateko aukera izan den arren, aurtengo festak eskaintzen zuen besterik. Urtero bezala, Ziortza Elkarteko gazteak aritu ziren sukaldari lanetan txistorra eta taloa eginez.

Baina txistorra ez zen, beste urteetan bezala, festako protagonista nagusia izan. Tabernarien Elkarteak, *Noaual* Kultur Elkarteak, Ziortza taldeak eta Udalak antolatuta, eta Nekazaritza Batzordearen laguntzaz, hamaika postu ezberdin ezarri ziren denetari-ko produktuak bildu zituen azokan. Bertan izan ziren Behemendi nekazaritza elkar-

teko zazpi postu eta bertako lau. Herrian ez da azoka gehiegirik izaten, hala, nekazari-ek benetan eskertu zuten beren produktuak plazaratzeko aukera hau.

Ixabel I.a Kalezar aldera joango da, Julian Izagirre izan baita zozketaren irabazlea.

Eskasia hau ikusita, azokarekin antolatzaileek bultzada eman nahi izan diote herriko nekazaritzari, Usurbilen bertan kalitate handiko produktuak baititugu.

Aurtengoan parte hartzea oso garrantzitsua izan ez bada ere, festaren balantzea baikorra da. Hemen ere, beste guztietan bezala, zailena bidea irekitzea baita.

Barazkiak, Eusko Labeldun oilaskoak, fruituak, behiesnea, etxean egindako gozogintza, ezti, intxaurreak

eta artisautza, kalitatezko hamaika produktu izan zen ikusgai. Bukaeran, epaimahaiak azokako postu txukunaren lehenengo saria Zubietako Zugasti baserriari eman zion. Bertako etxeoandreak, Pilar Arroyok, gustura jaso zuen 10.000 pezetako saria.

Ixabel I.ak bertaratutako en ikusmira zabaldu zuen. Euskal arrazako 103 kiloko zerria izan baitzen zozketan. Beste urteetan arkumea zozketatzen bada ere, aurtengo Santo Tomas setan ohikoa den zerria ekarri da Oronoz-Mugairetik. Ixabel I.a Kalezar aldera joango da, Julian Izagirre izan baita aurtengo zorteduna.

Tabernarien Elkarteak bere aportazioa propioa egin zuen. Postu berezi samarra ezarri zuten tabernari-ek, tabernetan agertutako arropa salgai jarri baitzuten. Parranda baten ostean, denetari-ko arropa azaltzen omen da tabernetan, hala, Benta tabernako Paulino Ibargoi- en dendari lanetan aritu zen umore tonu nabarmenean.

Amagoia Mujika



Zubietako Zugasti baserriko Pilar Arroyoren postuak eraman zuen I. Santo Tomas azokako saria.

Inguruko fruitu ekoizleentzako zerbitzua eskainiko du sagar dultzearen zentruak

Udalak Bizkarre kalean duen lokalak hemendik aurrera izango du erabilpenik, erabilpen emankorra, gainera. Pasa den igandean ireki baitzituen Sagarlan zentruak bere ateak. Añorgako bi anai-arreba eta hernaniar baten esku izango den lokalak, sagar dultzearen elaborazioa izango du ardatz.

Aitor Etxeandia hernaniarra, orain Iruñean bizi den arren, eta Añorgako Antton eta Alazne Olaizola dira sortu berri den Sagarlan enpresako kideak. Dagoeneko badira 8 urte sagar dultzearen produkzioan dihardutela Añorgan dituzten sagastiekin. Baserrian artisau moduan egindako dultzeak, ordea, ez ditu merkaturatzeko beharrezko diren erregistro eta osasun baldintzak betetzen.

Hala, hirukote honek Behemendi nekazaritza elkartearengana jo zuen "sagar dultzearen produkzioa jarduera ekonomiko gisa garatu nahi genuela proposatuz", halaxe adierazi zuen Antton Olaizolak. Behemendiri ideia gustatu eta lokal bila hasi zen. Hala, Udalarekin harremanetan jarri eta honek Bizkarre kaleko gunea eskaini zion. Orduantxe jarri zen martxan Sagarlan enpresa.

Proiektu berri honen helburu nagusia, beraz, baserrian artisau moduan egiten den produktua merkaturatzeko moduan ekoiztea da. Bide honetatik, Sagarlan zentro berrian ekoiztutako dultzeak



erregistroko zein osasun baldintza guztiak beteko ditu eta merkaturatzeko prest izango da. Gainera, Udalak eta Behemendik hitzartutakoaren arabera, fruitu elaboraziorako zerbitzu hau Beterriko fruitu ekoizle guztien esku izango da. Hau da, bere dultzea ekoiztu nahi duen orok Sagarlaneko ateak irekiak izango ditu.

Sagar dultzearen produkzioa jarduera ekonomiko gisa garatu nahi du Sagarlanek

Sagarraren eraldaketa ez da enpresa berri honek izango duen egiteko bakarra. Batetik, fruitugintza arloko

ikastaroak eskainiko ditu eta bestetik, aholkularitza lana ere beteko du.

Beraz, urtarriletik aurrera Euskal Herri osoko merkataritza-guneetan topatuko dugu Sagarki izeneko produktu berria. Apustu ausarta egin dute, gainera, Sagarlaneko hiru kideek. Anttonen hitzetan, "merkatuko alor guztieta-*ra helarazi nahi dugu gure produktua, sagardotegietan, harategi-urdaitegietan eta baita gainontzeko dendetan ere*".

Sagarrarekin hasiko badira ere, zentru berriak fruitu guztiekin eginiko dultzeak egiteko aukera eskaintzen du, hala eta guztiz ere, Sagarlaneko kideek martxan jarritako proiektua, oraingoz behintzat, nahikoa apustu badela uste dute.

Amagoia Mujika

2.000. urteko egutegia zuentzat

2001. urtea gainen dugula! Urtea azkar pasa da eta ia ohartu ere egin gabe datorren urteko egutegiari begira jarri beharra izango dugu guztio.

Guk behintzat zuengan pentsatu eta kontu haundiz prestatu dugu datorren urteko egutegia. Herriko jai, egun eta ekitaldi garrantzitsuenak eta hainbat argazki bildu ditugu bertan eta 2001. urtean

sartu baino lehen zuen etxeetan izango da.

Zaloa Arnaizek diseinatu eta egin du aurtengoa, baita dotore atera ere! Ziur jaso bezain laster zuen sukalde edo etxeko txokoren batean jarriko duzuela Noaua!ko egutegia. Guk hala nahi genuke behintzat. Bitartean, ondo pasa 2000.urtea amaitzeko falta diren egun hauek eta Urteberrion guztio!

Eguberritako xextuaren zozketa

Gabonak pasa onoren jan eta edate gogorik baduzue hona hemen Noaua! Kultur Elkarteak bere bazkide aldizkarian publizitate egiten dutenei eskaintzen duten aukera paregabea. Urtarrilaren 3an goiko hori bezalako hiru xextu zozketatuko ditugu.

Xextu horietako bat publizitatea egiten duzuen artean banatuko dugu. Zozketa eguna baino lehen zenbaki bana bidaliko zaitzue, eta zuen zenbakia tokatzen bada... ba horixe, xextua zuretzat.



iak berriz, bazkideen-
ngo dira.

bazkide zenbakiak eman diezazueke. Jakituzean produktu daude: Saizarko txardoa eta Belmont txardoa, Kandido txardoa, Markel Olaizola-ren etxeko patxarina, Joxe Mari Arrutiren txorizoak, Galardiko babarrunak, Joxe Mari Alduntzinen eztiak, Juan Joxe Arrospide-ren onttoak, Aitzagako txanpainak, Andres Bruño e Hijos-en mariskoa, Agiña piperrak eta Angulas Agiñaga gula.

Alarma gorria piztu da behi eroen gaixotasunarekin

Behi eroen gaitzaren agerpenak hankaz gora jarri du gizarte osoa. Jendea erabat beldurtuta utzi dute Frantzia eta Galizian atzeman diren kasuek eta Usurbilen ere behi eta txalaren haragiaren erosketek beherakada nabarmena izan dute. Alarma gorria piztua da dagoeneko eta kaltetuak, gehienetan bezala, haragitarako behiak hazten dituzten abeltzainak dira. Baina ba ote dago harategietan behi haragia ez erosteraino iristeko arrazorik?



Behi eroen gaitzak (Behien Entzelopatia Spongiformearen gaitza) erabat aztoratu du gizarteaz azken hilabeteetan. Gaitz hori Britainia Handian detektatu zen estreineko 80 hamarkadan, Frantzia lehen kasua agertu zen 1991. urtean eta pertsonengan eragin gaitza duen gaixotasun hilgarri honek larrialdi gorriaren alarma sortu zuen berriz ere 1997an. Hala ere, aurtengo azaroan behiaren krisia areagotu egin da. Frantzia behi eroen kasuak etengabe azaltzen hasi ziren eta Galizian ere lehen behi eroa atzeman zuten.

Euskal Herrian orain arte ez da behi eroen kasurik izan, baina Galiziako agerpenekin gizarteak zalantza jarri du Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko ganaduaren kalitatean. Hala ere, Gipuzkoan hazi eta hiltzen den behiaren haragia osasuntsu dagoela esateko arrazoiak badaude. Behi eroen kasuak agertzen hasi zirenetik Euskal Herriko haragiaren osasun azterketei lehentasuna eman die Euskal Gobernuak.

Foru Aldundiekin lankidetzan, alde batetik behiei ematen

zaizkien pentsuak etengabe aztertzen dira, bai ekoizten dutenean, bai banaketan eta bai bere erabilpenean ere. Beste aldetik behi-hiltegian hiltzen diren abereei etengabe egiten zaizkie analisiak. Horrez gain ganadu hustiapenetako behi eta txekorrak aztertzen dira aldizka odolaren, ilearen eta pixa aztertuz, eta harategian saltzen den haragia ere bai.

Juan Altuna usurbildarrak, adibidez, haragitarako behien hustiapena dauka. Limousin arrazako lau behi ekarri zituen 1986. urtean eta gaur egun guztira 70 abere inguru ditu. Bere esanetan osasun aldetik bere txekor eta behi guztiak erabat kontrolatuta daude. *"Alde batetik Eusko Jaurlaritzatik etortzen dira eta Euskal Labelekoak ere hemen izaten*

ditut askotan. Odola eta pixa aztertzeaz gain pentsua ere aztertzen dute, eta nik, adibidez, pentsu bera erabiltzen dut aspalditik. Guk pentsu konzentratuak ez dugu erabiltzen. Bertako behikia indartu nahi badugu dena kontrolpean izatea ezinbestekoa da eta gaur egun hori lortzeko lan handia egiten ari da".

Gipuzkoan 250 buru baino gehiagoko haztegi gutxi

Gipuzkoan haragitarako ganadua haztea lehen sektoreko jarduera garrantzitsuena bihurtu da dagoeneko. Galiziako edo Asturiaseko abeltzaintzarekin alderatu ezin bada ere esnetako behiak izatek haragitarako behi eta txekorrak izatera pasatzen ari dira hemengo baserriarrak. Hala ere, Gipuzkoako behi haztegiak txikiak dira eta oso gutxitan izaten dituzte 250 buru baino gehiago. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako zentsuaren arabera 4.752 hustiapen daude eta 83.139 buru. Horietatik 30.900 ugalketara bideratuak dira, 25.622 esnearen ekoizpenera eta 21.865 behi-hiltegietara eramateko

Harategietako haragiaz gain, Txekorrak eta behiak etengabe aztertzen dituzte eta jaten dutena ere bai.

dira. Usurbilen, berriz, 98 hustiapen daude zentsu horren arabera eta 1.229 buru. Ugalketarako dira 421 dira ugalketarako, 511 esnetarako eta 297 hiltegiara eramateko dira.

Gipuzkoan dagoen behikiaren kontsumoari, ordea, ekoizpen honek ezin dio aurre egin. Urtean 12.294.000 kilo inguru behi haragi jaten dugu eta ekoizpena ez da 7.500.000 kilotara iristen. Horregatik, eskaintza eta eskaeraren diferentzia orekatzeko Gipuzkoatik kanpo ekartzen da behikia. Euskadiko Nekazaritza Departamenduak emandako datuen arabera, Gipuzkoako harategietan erosi daitekeen behikiaren %55a Euskal Herriko behi-hiltegietan hildakoa da. Hauetatik %40a Euskal Herrian jaio eta hazitakoak dira eta %15a Frantziatik, Irlandatik edo Espainiatik ekarritakoak izaten dira. Gainontzeko %45a kanalean ekartzen da kanpotik. %27a Binefarko hiltegiakoa da, Teruelgo hiltegiakoa %13a) eta gainontzeko %5a Danimarka, Alemania eta Hegoameriketatik ekartzen da.

Neurri zorrotzagoak hartzen hasi dira leku guztietan

Frantzia behi eroen kasuak agertzearekin batera neurri zorrotzagoak hartzen hasi dira. Europear Batasuneko Nekazaritza Ministroen Kontseiluak abereak elikatzeko animalien proteinak (arrainenak izan ezik) erabiltzea debekatu du. Abere okelez eta hezurrez eginitako irina eta pentsuak debekatuta egongo dira urtarilaren 1etik aurrera. 30 hilabetetik gorako behiak hiltzea erabaki da, baldin entzefalopatia espongiformearen froga gainditzen ez badute. Euskal Herrian, ordea, froga hau 20 hilabeteko ganaduari ere egiten zaio. Guztira 13.000 buru aztertzen ari dira Euskal Autonomi Ekartearen.

Gipuzkoan jaten den behikiaren gehiengoa 12tik 16 hila-bete bitarteko txalarena da. Horregatik behi eroen gaixotasunaren arriskurik ez dagoela ziurtatzen dute adituek. J.J. Badiola Zaragozako Albaitaritza Fakultateko buruaren esanetan Espainian behi eroengatik kezkatzeko arrazoirik ez dago, "abereekin egindako irinaren ordeztu soja erabiltzen baita". 1994. urtetik irin mota hori debekatuta dago. Baba txikia, belarra eta illarrekin batera soja irina bakarrik ematen zaie.

Produktu eta lehengai naturalez egindako pentsua

Horretan zerikusi haundia du INEKO kooperatibak. Itziarko kooperatiba honetan behi eta txekorren zatitza pentsua egiten da besteak beste, eta Giouzkoako 270 nekazari eta abeltzain bertako bazkideak dira. Jasone Lizaso INEKO-ko gerenteak dioenez abereen eta haragiaren kontsumitzaileen ongizatea bermatzea da beraien helburu nagusia. "Pentsua egiteko inoiz ez dugu abereekin egindako irinik edo abere grasarik erabili. Artoa, garagarra, garia, babak eta oloa erabiltzen ditugu lehen-

gai gisa. Horrez gain sojaz eginitako irina, erremolatxaren mamia, alfalfa granulatuak, kotoi hazia, arto eta girasolaren liko eta animalien jatorrizko grasa dira erabiltzen ditugun produktuak". Hala ere, lehengai nahiz produktuen eta pentsuaren kontrola erabateko dela argi utzi nahi dute.

Herriko harategietako behikia erosteari uzteko arrazoirik ez dagoela segurtatzen dute

Behikia jateko beldurra izateko arrazoirik ez badago ere kaltea egina dago. "Jende askok uste du baserritarra dela behi eroen gaitzaren erruduna eta hori ez da horrela - dio Juan Altunak - Komunakabideek oso gaizki bideratu dute arazoa eta jendea izututa dago. Telebistan behi eroen inguruko albisteak ematen dituztenean ibili ezin duten behi pintto horien irudiak jartzeko dizkigute behin eta berriz, baina guzti honen erantzule izan daitezkeenak ez dira atzeratzen. Nire ustez politika kontua da dena, milioi ugari baitaude jokoan".





Ez dut uste Euskal Herrian behi eroen kasurik egongo denik

Joakin Alkorta
Alkorta harategia

Nahiz eta guk Usurbil eta inguruko baserrietako ganaduaren haragia erabili behi eroen inguruan esan den guztiak eragina izan du jendearengan. Komunikabideetan esandakoarekin erosleak beldurtu egin dira eta behi haragiaren salmenta nabarmen jeitsi da Frantzian behi eroen kasuak agertzen hasi zirenetik. Jendearen buruan komunikabideek eman duten irudia gelditu da eta hori da arazoa. Niri ez zait iruditzen Euskal Herrian behi eroen kasurik egongo denik. Nik behintzat hemengo haragia lasai jateko esango nieke usurbildarrei.

Gipuzkoako baserrietan txekor eta behiei osasun azterketa ugari egiten zaizkie urtean zehar. Horrez gain, behi-hiltegiaren beste azterketa batzuk

egiten dituzte eta harategian bertan hilabeteen behin hemen izaten ditugu haragia aztertzen. Dena kontrolatua dago.

Guzti honekin kaltetuenak baserritarrak eta gu gara. Guk ezin badugu behirikirik saldu baserritarrek ezin dute txekorrik saldu, denok soka berean bikaude. Baserritarrak konfiantza guztiarekin txekorrek eta behiak hazten baditu eta jendeak konfiantzarik ez badu... Beste kontu bat da hipermerkatu haundietako haragia. Hauek kanpoko haragi ugari ekartzen dute, tonelada ugari satzen dira, baina ez da jakiten nondik eta nola. Azken finean behi eroen kasuak non azaldu diren ez dute garbi esaten, eta guztiok zaku berean sartu gaituzte.

Jendea ondo informatuta balego behikia jateko beldurrik ez luke izan behar

Jendeak komunikabideek eman dituzten behi eroen inguruko berriak ez ditu ondo ulertu. Nire ustez berri batzuk informatzeko baino gehiago desinformatzeko eman dituzte. Bai txekorrek eta bai behiak jaiotzatik hiltzen diren arte ondo kontrolatuta egon dira orain arte, eta hemendik aurrera gehiago oraindik. Non jaiota den, zer jan duen, zer gaixotasun pasa dituen, hil ondoren zerbait baduen... azterketa sakonak egiten dituzte. Ez dago beldurtzeko arrazoirik, sekula baino garantia gehiago dauka Euskal Herriko haragiak.

Izan ere, jendea beldurtuta dagoela nabaritu dugu azken hilabete honetan. Txekor hara-

gia nahikoa ondo saltzen ari da, baina behiarena gutxiago erosten da orain. Nire ustez komunikabideen lana da hau guztia. Gaur egun telebista ia denok ikusten dugu, eta hemen ikusitakoaren ondoren jendea behikia ez erosten hasi da. Badirudi behi eroen gaia komunikabideentzat altxor bat bilakatu dela. Arazo honek zenbat eta gehiago irauan beraientzat hobe, honen inguruko berriak ematen jarraitzeko aukera baitute. Hala ere, berriz diot: haragia kontrolatua eta ondo ziurtatuta dagoen bitartean haragi hori jateko beldurrik ez da izan behar.

Inaxio Lazkano
(Dia-ko harategia)

Baserritarron lana baloratu behar da

Behi eroen gaitza, eguneroko gaia bihurtu zaigu azkenaldian prentsan. Gainera, gaia ikuspegi sentsazionalista batetik tratatua izan da, jendearen artean izua sortuz. Esan beharra dago baserritarrok lana ondo egiteko sekulako ahalegina egiten dugula, baina bertako administrazioak ez dira jabetu ondo egindako lana baloratzeak duen garrantziaz. Hauentzat helburua merke eta asko ekoiztea da, eta horrela ari gara orain dela 20 urteko prezioetan haragia saltzen.

Nekazaritza politika honen ondorioa da behi belarjaleak kanibal bihurtu izana. Ganaduak behar dituen proteinak (soja, ilarra eta baba) ezin dira Europan ekoiztu mundu mailako nekazaritza politika diseinatzen dutenen erabakiz. Proteina hau Estatu Batuetatik erostera behartuta gaude, eta horrek ekarri du zenbait naziotan gastuak merketzeko abereei abere proteinak ematen hastea. Euskal Herrian, gaur egungo salerosketa merkatu zabalak behi eroen gaitzaz guztiz libre gaudela esatea eragozten badigu ere, hemen ez dago epidemiarik.

Azpimarratu beharra dago, baserritarrok ez daukagula errurik gai honetan. Agintari politikoek har dezatela euren gain agertutako eskandaluen ardura, sektorearen egituraketarik ez baitute egin nahi izan. Hor jarraitzen dute txekor hazkuntzan erabiltzen diren hormona, antibiotiko, kortikoide eta bestelako estimulagarriak. Bertako administrazioak kanpoko haragi dudagarriei eskua sartzan dieten bitartean, eta hemengo nekazaritza politikak bere horretan jarraitzen duen bitartean, eskandalo berrien arriskua hor edukiko dugu. EAEn gabezia guzti hori labelaren irudiarekin estali nahi dute. Labelak baserritarraren lana aprobetxatu du irudian oinarritutako marka bat sortzeko. Ez du sektorerik ekoiztatzen, eta elikadurari ez dio daukan garrantzirik eman. Arazo hau sustraitik behar dute konpondu: elikadura, manejoa... eta ondorioz prezioak.

Nekazariok eta gizarte osoak kalitatezko ekoizpenak eskatu behar ditu, produktuarekin eta ingurugiroarekin errespetuzko praktikak bultzatuz gure baserri txikiak bizirik irauin dezaten. Euskal Herrian badugu nekazaritza hori, eta horrelako kasuek gure lanaren balioaz jabetu eta lan hau baloratzeke balio beharko luke.

ENHEko Aitor Aranburu

Haurrak, gabonetako iragarki bonbardaketaren biktima nagusi

Gabonak datozela esatea sasoi honetan ez litza-teke ezerren abisu, honetaz konturatzeko nahikoa baita telebista piztea. Ez da, gainera, denbora luzez begira egon behar, hamar minuturen buruan hamaika iragarki jasotzeko prestatu baitu gizakia azken urteotan kaxa-ten-telak.

Urte sasoi honetan iragarkien bonbardaketa jasaten dutenak haurrak dira nagusiki. Olentzero eta erregeak datozenaren aitzakiaz, publizitate enpresek saiakera oro etxeko txikienen arreta deitzera bideratzen dute. Inongo mugarik gabeko eraso izaten da.

Iragarkien munduan, beste alor askotan bezala, badira bete beharreko arauak. Muga hauek zentzu askotakoak dira, bai denbora tarteari dagozkionak, baita mezua eta sinbologia baldintzatzen dutenak ere. Hala eta guztiz ere, publizitatearen munduan arauak ez dira oso finkoak. Alorra bera nahikoa subjektiboa denez, mugak ezartzeko erabiltzen diren irizpideak ere moldakorak izan daitezke eta, ondorioz, ez dira beti eraginkorrak.

Iaz Estatu espainiarrean jostailuen inguruko 16 iragarki kentzea eskatu zuen Kontsumitzaileen Elkarteak, arauak ez betetzeaz gain, asko oso sexistak zirelako. Finkatutako minutu kopurua gainditzea da iragarki bat komunikabideetatik ezabatzeko arrazoietakoa bat. Hala eta guztiz ere, adituak



zein Kontsumitzaileen Elkarteak bat datoz "luzera baino, iragarkien mezua eta sinbologia arazo larriagoa" dela baieztatzean.

Esaterako, egun telebistan dauden jostailu iragarkien %30ak sexu rolak asko markatzen dituzte.

Haurrak, ikusle pasiboak

Publizitateak ikuslea engainatu egiten du, gehiegikerietan erortzen delako. Helduek, badakite iragarkietan azaltzen den guztia ez dela benetako, badakite exagerazioa dagoela. Haurrek, ordea, ez dute publizitatea ikuspegi kritikotik ikusten, dena sinisten dute. Honez gain, haurrak ikusle pasiboak dira, *zapping* gutxi egiten dutenak baitira. Hauek dira Javier Bringuek, Nafarroako Unibertsitateko irakasleak, bere tesian ateratako zenbait ondorio.

Egindako inkesta askoren arabera, haurrek gehiago ikusten dute telebista helduentzako orduetan, eurentzakoetan baino. Afalosteko orduetan

famili giroan telebista ikustea ohikoa da. Hala, Bringue irakaslearen iritziz, "*gurasoek momentu hauek aprobetxatu beharko lituzkete iragarkia zer den eta zein helburu dituen azaltzeko seme-alabei*". Haurrei publizitatea ikuspegi kritikotik ikusten erakustea garrantzitsua baita oso.

Haurrek iragarkietan azaltzen den guztia sinisten dute, ez dute ikuspegi kritikorik

Izan ere, telebistako heroiak eta jostailu "magiko" horiek, benetakoak ez diren ilusioak pizten dituzte haurrengan eta umeak sofritu egiten du jostailu batekin desilusia hartzen duen bakoitzean.

Baina iragarkiak ezezik, azken urteotako jostailuak ere ez dira batere egokiak, ezta hezigarriak ere. Eusko Jaurlaritzak aurtengo sei hilabeteetan jos-

tailu ugari erretiratu du merkaturik. Hauen artean, pieza txikiak zituztenak, ertz edo punta zorrotzetakoak eta margo toxikoak zeuden, besteak beste.

Baina jostailuen ezaugarri fisikoez gain, bada kezkatzeko beste arrazoirik: jostailuen mezua eta sinbologia. Egun telebistan iragartzen diren jostailuak indarkeria dute nagusi, bateko borrokalariak eta beste heroiak direla medio.

Gainera, jostailuak berak hamaika funtzio betetzen ditu, pila bidez, hori bai. Bada negar egiten duen panpina, bada barre egiten duen beste bat, bada pixa egiten duen beste bat...ez al da aberasgarriagoa panpina bakarrak dena egitea haurren irudi-

menak bultzatuta? inolako pilarik gabe? Bestetik egun hain modan dauden bideo-jokoak daude. Hauek ikusita non da lagunarteko jolasa? Ez al dira indibidualismoaren adierazpen gordina?

Honetan guztian gurasoek funtsezko papera dutela gauza jakina da edo hala izan beharko luke.

Jostailu bat aukeratzeko orduan zenbait irizpide kontuan hartzea funtsezkoa da: toxikotasuna, sexismoa, indarkeria, prezioa, bakarkakoa... eta, zein dira jostailu gomen-dagarrienak? sortzaileak direnak, adinari egokitzen zaizkienak, dinamikoak, lagunarteko giroa bultzatzen dutenak, prezioz neurrikoak direnak...

Har dezagun, esaterako, gabon hauetan hainbeste etxetan sartuko den bideo-jokoaren adibidea. Azken urteotan joko hauen gorakada garrantzitsua izan da eta, gainera, gehien aukeratutako bideo-jokoaren artean sexismoa eta indarkeria da nagusi. Hau guztia jakinda eta haurrak hala eskatuta ere, bideo-joko bat utziko al du etxean aurten olentzerok?

Guraso sena ahaztu gabe, benetan ona litzateke saiakera berezi bat egitea. Nahiko gertukoa zaigun olerkari baten musikatutako hitzak gogoratuz, beti nahi duen guztia eman, baina inoiz ez behar duena.

Amagoia Mujika

Ludoteka eta jostailu erakusketa Txatxilipurdiren eskutik



Pasa den abenduaren 17an Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen ludoteka eta jostailu erakusketa izan zen ikusgai Udarregi ikastolan. Gerturatu ziren haurrek jostailu batekin asma daitezkeen hamaika jolas ezagutu zituzten. Garrantzitsuena ez baita jostailua bera, jolasa baizik. Gurasoek ere izan zuten zer ikasia, Olentzeroren eskutitza egoki idazteko argibideak eman baitziren bertan, hau da, jostailu batek egokia izateko bete beharreko baldintzen berri izan zuten.



Arkaitz Portullarrume

Amnistiaren Aldeko Batzordeko kidea

Arotza

Gosea ez dadila aitzakia izan, gu mugiarazteko

Gabonak iritsi dira. Urtero bezela, egun hauetan sentsibilitate berezia ernaltzen da gizakion bihotzetan. Beti izan ohi dira bereziak, baina ziega batean edota izkutu bizi den batentzat?

Egun seinalatu hauetan, ordea, ezin ditugu ahantzi Euskal Herritik kanpo espainiar eta frantziar gartzeletan eta munduan barreiatu dauden euskaldunak. Euskal Herriko etxe askotan faltatuko da senitartekoren bat, aita, ama, semea edota alaba.

Euskal Herriak eta euskaldunok, tamalez, egunerokotasunarekin oso uztartutik bizi ditugu espetxeak, errepresioa, exilioa bezalako hitz eta errealitateak. Bestela, ikusi besterik ez daukagu Euskal Preso Politikoen euren eskubideak errespetatzeko burutu dituzten hamaika borroka: besteak beste, Kolektiboak buruturiko gose-greba, gure herrian garatzen ari den nazio eraikuntzaren prozesuan parte hartzeko duten eskubidea betearazteko eskatuz. Euskal presoak ziega batean eta Euskal Herritik ehundaka kilometrotara egin zezaketen guztia eman zuten. Halaxe da, eta berriro diot, eman zezaketen guztia eman zuten.

Albiste gordinak entzun genituen hilabete haietan. Preso asko hil zorian ikusi genituen. Askok, halere, pentsatuko duzue alperrik izan zirela sufrimendu eta samin haiek. Izan ere, presoak oraindik ere dispertsaturik jarraitzen baitute espainiar zein frantziar espetxetan barrena. Baina, ez da horrela. Presoak oraindik ere, nahiz eta legeak horrelakorik ez adierazi, dispertsioaren gatibu jarraitzen dute.

Baina, gose greba hori gure borrokan, hots, nazio eraikuntzaren aldeko bidean, beste urrats bat izan zen, oraindik ere borrokan diharduten bezala.

Guk ere tamaina honetako urratsak eta borrokak emateko eta gauzatzeko ordua iritsi zaigu, nahiz eta gure ordua aspaldi iritsita dagoen.

Gatazkaren une samintsuenetako batean bagaude ere, ezin dugu etsi. Presoek ez dute etsitzen eta guk ere ezin dugu etsi.


Su-eten garaian euskal gizartean, presoan aferan bederen, sortu zen sentsibilitate eta borrokarako grina hori berpiztu behar dugu berriz ere. Ezin ditugu presoak bakarrik utzi, orain, are gehiago. Sentsibilitate teoriko hura, eta egun oraindik ere egon badagoena, gauzatzen hasi beharra daukagu. Hori dela eta, hainbat ekimen antolatu dira Gabon hauetan; horietako bat, abenduaren 26tik 30a bitartean egingo den gose-greba. Uneoro euskal gizartea elkartzuna adierazten ari bada ere, gure konpromezu maila haundituz joan beharra daukagu, eta orain dugu aukera paregabea.

Amnistiaren Aldeko Batzordetik egin hauetan burutuko den baraualdian usurbildarrei parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Sarrera abenduaren 26ean, eguerdiko 12tan izango da eta irteera abenduaren 30ean, arratsaldeko sei eta erdietan. Ez dezagun aukera hau alperrik gal!

PRESOAK SOS!

Euskal Preso eta iheslariak etxera!

Lehiaketa



Zein dira argazkian ateratzen direnen izen-abizenak?

Horietako bosten izenak jakin nahi ditugu

Asmatzaileen artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



...eta erantzuna



Nork pentsatuko luke Zubietako plazan futbolean jokatzen zutela mende hasieran? Zueta-ko askok ez behintzat, oraingo honetan ez baitugu erantzun zuzenik jaso. Zezena, soinu jolea etab. falta direlakoan zeundeten gehienok, baina hain dotore dauden hauek baloia- ren atzetik dabilta Zubietako plazan ateratako argazkian. Beraz, erantzun zuzenik gabe ezin saririk eman.



Urte berri on!

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aranpasa eta pattarrak
- Itsaskientz saladahozber otrufazaparez
- Zapo txangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizunapatapur e, ondo etapiklo piperrazharagisaltsetan
- Etxeko azkenburuko en dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

ABENDUAK 24 igandea

- Parroki taldea **Jaiotzarekin kantu-kantari** irtengo da arratsaldeko 16.00etan parroki aurretik.
- Euskal Presoak Euskal Herri-artzeko eskatuz **olentzero errebeindikatiboa** izango da arratsaldean.

ABENDUAK 28 osteguna

- Usurbilgo Sagardo Eguna-ren Lagunak taldeak antolatuta **barrikotea** arratsaldeko 19.00etatik aurrera. Horrez gain **gartzainak eta sardinazarrak** banatuko dira.
- *Noaua!* Kultur Elkarteak, Usurbilgo Tabernarien elkarteak eta udalak antolatuta **triki-bertsoa** tabernaz-taberna. **Unai Agirre eta Mikel Legarreta** herriko trikitilariez lagunduta.

ABENDUAK 30 larunbata

- Herriko **gudariei omenaldia** frontoian. **Aurten omenaldi berezia Joxe Martin Sagar-diari**, bere erailketaren 20. urteurrenean. Ekitaldia arratsaldeko 19.00etan hasiko da.

URTARRILAK 1 astelehena

- Goizeko 2.00etatik **aurrera diskoteka herriko frontoian**. Herriko D.J-ek jarriko dute mota guztietako musika goizaldera arte.

URTARRILAK 5 ostirala

- Ziortza Gazte Elkarteak antolatuta **Erregeen kabal-gata**. Urdaiagatik 18.00ak aldean irtengo dira eta frontoira 19.30ak inguruan iritsiko dira. Goizeko 11.30etan karteroa etorriko da frontoira.

OHARRAK

- ✍ **Neska bat eskaintzen da goizez haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo adin-eko jendeari laguntzeko.** Harremanetarako telefonoa: 943 83 39 74
- ✍ **Gauetan haurrak zainduko nituzke**, urtezahar egunean ere bai. Deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).
- ✍ **Gabonetan** ere primeran pasa nahi baduzu **"Udajolas"** zain duzu. Izena eman nahi baduzu deitu 943 37 29 64 edo 653717089 telefonotara
- ✍ **Pisua alokairuan hartu** nahi genuke Usurbilen. Telf. 943 36 02 13 (Yolanda edo Iñaki)

Gabonetako Gazte mailako I. pala txapelketa

- 1980-86 urte bitartean jaiotako mutilak paleta gomaz.
- 14 urtetik gorako neskek teniseko pelotarekin.
- Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 7an bukatu. Partiduak frontoian jokatu dira goizetan.
- Izen-ematea Txiriboga tabernan urtarrilaren 23an eguerdiko 12.00etan. Bikoteko 1000 pezeta

Antolatzaileak: Usurbilgo Pelota Elkarteak eta herriko pelotazaleak

Elkarteen arteko III. Mus Txapelketa dagoeneko martxan da. Urtarrilaren amaieran izango dira azken musaldiak Mahaspildegiko Elkarteak. Elkarte bakoitzak bere barne txapelketa antolatuko du eta elkarte bakoitzeko bi finalistek bere elkarte ordezkatuko dute finalean. Mus txapelketa honetan parte hartu nahi duzuenok zuen elkarteetan izena eman dezakezue.



K m

M S JE LEKU

K r l m s t m s t r ut k

Zorionak eta Urte berri on!



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu! San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Usurbilgo tabernarien elkarte




- 1 Gorriti. 943 36 27 70
- 2 Txurrut. 943 36 00 80
- 3 Patri. 943 36 27 25
- 4 Zendoia-enea. 943 36 25 60
- 5 Sagasti. 943 36 60 03
- 6 Antxeta. 943 37 03 44
- 7 Usurbil. 943 36 43 58
- 8 Txapeldun. 943 37 04 57
- 9 Oiardo. 943 37 24 98
- 10 Karobi. 943 36 27 43
- 11 Gure Pakea. 943 37 32 28
- 12 Benta. 943 36 61 21
- 13 Bordatxo. 943 37 10 42
- 14 Xabier. 943 36 19 78
- 15 Irrati. 943 36 06 16
- 16 Aitzaga. 943 36 02 17
- 17 Txiriboga. 943 37 00 13

Zorionak eta Urte berri on!

M A H U K A

ARROPA DENDA

Aukera zabala gizon nahiz emakumeentzat!



Hemen duzu zure oparia
erosteko aukera!



Etxebeste kalea, 3 Telf: 943 36 11 06
Zorionak eta Urte berri on!